

# Karkara

48A

I. ZENBAKIA

ORIO ETA AIAKO ALDIZKARIA

1996KO OTSAILA



*Elkarri-keta*

**Joséba Agirre**

*Erreportajea*

**Hezkuntzaren antolamendu berria**

## EUSKARAREN ALDE *hitzarmena izenpetu dute 31 taldek*

EUSKARAZ GAZTE III. LITERATUR LEHIAKETA • GEHIGARRIA BARRUAN

**KALITATEAK ORION IZEN BAT DU:**

# **ORIOKO HERRI IKASTOLA**

Orioko Herri Ikastolak eskaintzen dituen mailak aurkeztu nahi ditu:

- ◆ 2 urteko gela
- ◆ HAUR HEZKUNTZA: 3-6 urte
- ◆ LEHEN HEZKUNTZA: 6-12 urte
- ◆ DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA: 12-16 urte

Orioko Herri Ikastola, Euskaran eta Euskal Kulturan oinarritutik, Kultura Unibertsalera irekia dagoen Ikastola da.

Orioko Herri Ikastolako atea Orio eta Aiako ume guztientzat zabalik daude.

**OHARRA:** Aurten matrikulazioa otsailean izango da.

Ikastolako telefono-zenbakia: 83 47 04



UDALEKO EUSKARA BATZORDEA

## **'ORIO KANTARI' DISKO KONPAKTOA SALGAI**

- Salgaiherrikohiru liburudendetan; Iturain, Ontza eta Alustizanean
- Musikariotarrek oriotarrontzategindako 24 kantu eder, belarrien gozagari: 14 berriak dira eta beste 10ak 1994an grabatutako musika-zintakoak.
- Parte hartu dute: Salatxo; Oihana Alkorta; txistulari-taldea; Azkenobieteta eta Jokin; Musika Eskolakot taldeak: Salatxo Txiki, talde instrumentalak, Eskusoinu-orkestra; bertsolari-taldea; Imanol Urkizu; Gozategi taldea; haur-taldea; Pello Alonso; Iñaki Bastos eta Joseba Gurrutxaga.
- Prezia: 2.000 PTA

# KarKara

Herriko Plaza, 1  
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua  
SS 346/90  
ISSN  
1132-1105  
Tirada  
1.200 ale

Erredakzio-taldea  
Miren Etxeberria  
Eba Gaztañazpi  
Iakes Goikoetxea  
Ana G. de Txabarri  
Ana Iturain  
Iñaki Iturain  
Nere Manterola  
Ainara Peña  
Jabier Zabaleta  
Aiako Erredakzioa  
Eli Lasas  
Idoia Zarautz

Publizitate-arduraduna  
Miren Etxeberria  
Kolaboratzaileak  
Jokin Salsamendi  
Azken orrialdeko  
marrazkia  
Luis Mari Illarramendi  
Argazkiak  
Ana G. de Txabarri  
Banatzalea  
Miguel Angel Sanz  
Inprimategia  
Bizker (Usurbil)

- |    |   |
|----|---|
| 4  | <b>Gutunak</b>  |
| 5  | <b>Herrian galdezka</b><br><i>Zer iritzi duzu barra berriari buruz?</i> |
| 6  | <b>Herriko kontuak</b>  |
| 10 | <b>Kirolak</b>  |
| 13 | <b>Zine-kritika: Seven</b>  |
| 14 | <b>Iritzia: Iñaki Iturain</b>   |

15	<b>AIA</b> <b>Berriak</b> <b>Elkarrizketa: Luisa Agirretxe</b>
----	--

- |    |  |
|----|--|
| 19 | <b>Erreportajea</b><br><i>Hezkuntzaren antolamendu berria</i>                    |
| 22 | <b>Elkarrizketa</b><br><i>Joseba Agirre</i>                                      |
| 24 | <b>Denetik pixka bat</b>   |
| 29 | <b>Kolaborazioa</b><br><i>Santa Kruz apaiza Aian.<br/>Traizio baten historia</i> |
| 30 | <b>Azkena</b>  |

## 1996ko publizitate-prezioak

Modulo bat .....	1.500 PTA
Bi modulo .....	3.000 PTA
Hiru modulo .....	4.500 PTA
Lau modulo .....	6.000 PTA
Sei modulo .....	9.000 PTA
Orrialde erdia .....	13.500 PTA
Orrialde osoa .....	27.000 PTA

Prezio hauak zenbaki baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugenez, zenbaki guztietan beren publizitatea egio nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldzikaria



Gipuzkoako Diputazioak  
diruz lagundutako aldzikaria

# KARKARako proposamenak

*Gu Aiako Lardizabal Herri Eskolako ikasleak gora eta hilero KARKARA irakurtzen dugu. Asko gustatzen zaigu, baina proposamen batzuk egin nahi dizkizuegu:*

Aldian behin, hasierako inkesta Aiako jendeari egitea gustatuko litzalguke. Baita KARKARAren atzealdean tarteka Aiako marraskia jartzea ere. Gainera, ahal denean, Aiari buruz gehiago idaztea nahi genuke. Adibidez, Mikel Markez abeslaria elkarrizketatu.

Amaitzeko zuzenketa bat egin nahi dugu: azkeneko alean Iona Rekarte kanpora joandakoa oriotarra zela jarri zenuten. Hori ez da horrela Iona ez baita oriotarra, aiarra baizik.

Agurtu aurretik eskertu nahi dizuegu aurreko aleko "Ezetz Ezagutu" lehiaketako argazkian Aiako jendea azaldu zelako.

Gure proposamenak kontutan hartuko dituzuelakoan, 7. mailako ikasleen partetik agur bero bat,

LARDIZBAL HERRI ESKOLAKO  
7. MAILAKO IKASLEAK

## Zaragueta eskolaren alde

Soldaduzkarekin ere berdin pasa zitzaidan. Gazte-gaztea nintzela, urrutitik ikusten nuen soldaduzka: eskatutako prorrogak-eta kontuan hartuta, urte dexente falta ziren oraindik 'inkorporatzeko deia' jasotzea eta nire baitan egiten nuen: 'Ba, ez zegok problemari. Niri tokatzen zaidanerako Euskal Herria independentea izango duk eta hemen ez duk egongo ez soldaduzka eta ez soldaduzka-ondo'. Gaztaroaren inozentzia!

Kontuak horrela, urteak pasa ziren eta, halako batean, prorrogak bukatu ere egin zitzaizkidan. Soldaduzkara joateko garaia iritsi eta oraindik zorioneko independentziarik ez! Hau marka gero! Eskerrak, hala ere, nire generaziokideak ugariak ziren eta sorteoa 'exceso de cupo' egokitutu zitzaidan.

Eskola-kontutan ere halatsu ibili naiz. Herriko bi eskolen artean zeuden liskarrak eta giro txarra ikusita, hauxe egiten nuen neur kolkorako: 'Ba, ez zegok problemarik. Seme-alaben eskola-kontutaz arduratzen hastea tokatzen zaidanerako Herri Eskola bakarra izango duk Orion bertako guztiontzat eta hemen ez duk izango oraingo lehia-giro gaiztorik'. Inozentzia ez da, non bait, hain erraz galtzen!

Urteak joan dira burutazio hori lehen aldiz izan nuenetik eta, hara non iritsi zaidan garaia gai horretaz arduratzeko eta —hau marka gero!— bi eskolen arazoa oraindik konpondu gabe!

Urteen joanak ez dit, bistan denez, etorkizuna igartzeko dudan gaitasun eskasa hobetu, baina eszeptizismo piska bat erantsi dit, horrelako gaien aurrean beti azaleratzen zaidana.

Eskolak duen garrantzia ukatu gabe, harrigarri egiten zait horren inguruko eztabeidek duten ahalmena, herritar ustez lasaiak irakiten jartzeko. Guztiek dute trapu zaharren bat aireratzeko (batzuk benetan zaharrak, gainera) eta openas geratzen da elkarrizketa patxadatsurako tarte posiblerik. Gaiak sutu egiten ditu batzuk. Orioko azken plenoetan, asunto hau dela-eta, izan diren eztabaidak aspaldiko gogorrenak izan omen dira. Bere eskola-proiektua defenditzeko jendea prest dago ia edoztarako: lepoko zainak handi-handi eginda aldamenean bizi den herritarri

astakeriarik handiena esateko ere bai.

Niri, berriz, litekeen egoerarik txarrena iruditzen zait oraingo giro gaiztotu hau. Trapu zaharrak albora bota eta elkarrengana hurbiltzeko pausoak emateko garaia da. Gazte-gaztea nintzenean bezala, uste dut herrian eskola bakarra izatea dela lehentasuna eta hobe genuke, nik uste, eskola bakar horren nolakotasunak lasai eztabaidatzen aritza, nork berearen defensia itsuan jardun beharrean.

Horretara iristen ez garen bitartean, ordea, aukera egin beharra tokatuko zait haurrek dituzten Orioko bikoteei. Aurtengo matrikulazio-eppeak laister zabalduko dira eta nik, gutun honen bidez, guk egindako aukeraren alde azaldu nahi nuke, patxadaz eta inoren merituak zalantzan jarri gabe. Zinez uste dut behingoz tortu behar dugun eskola bakar horretara iristeko jarrerarik irekiena Zaragueta eskolak erakutsi duela orain arte (salbuespenak salbuespen, egoskorak toki guztietan daude-eta). Zaragueta eskola, gainera, eskola ona iruditzen zait, irakasle eta instalazio onetan hornitua; euskalduna eta euskaltzalea eta, hori gutxi balitz, publiko eta doaneakoa. Herri Eskola ez dugun bitartean, zer gehiago eska liteke?

JABIER ZABAleta



### Zuzenketa

KARKARAKO azken alean Udaletxean izandako pleno istitutu bat buruzko berria azaldu genuen. Gaia, dakizunetan, Derrigorrezko Bigarren Heziketa zen. Gure azalpenean ez zen garbi geratzen nork aurkeztu zuen Plenoak azkenean onartu zuen idarria eta hainbat herriarrek zuzenketa egitea eskatu dugu. Honako plenoak onartu zuen idarria HBko zinegotziek eta Jose Miguel Leunda aurkeztu zuten eta bost zinegotziaren aldeko botoekin onartu zuten (HBko hirurak, Jose Miguel Leunda eta Luis Cisneros).

**G O N Z E K O**

\* KAFETEGIA  
\* IZOZKIAK  
\* CROISSANTEGIA

pasteleriko  
enharquak  
hartzen dira

Alta Lerkundi, 33  
Telefonia: 83 28 55

# Zer iritzi duzu Orioko barra berriari buruz?

*Barra berriko lanak nahiko aurreratuak daude momentu honetan eta horregatik egokia iruditu zaigu galdeztea ea nola ikusten duten oriolarrek orain arte egindakoa eta zein etorkizun ikusten dioten.*

FRANTZISKO URKIZU

74 urte

Mesede handia egin du, ze Donostian isten bada ere, hemen ez dago ezer egun berean. Getariako jendea ere benetan harriturik dago, eta lehenago etortzen ez ziren arren, orain lasai etortzen dira.

LEOKADIA IRIBAR

62 urte

Esan genezake barra egitea, aspaldiko partez egin den azierotik handiena izan dela. Barraren %80a segurua da, baina %20 hondarraren arabera dago. Lehen ere pasa zen ustegabeko galanta.



MARIO SALSAMENDI

26 urte

Nire ustez oso ondo egina dago, eta arrantzaleek esaten dutenez gainera, mesedegarria omen da. Orain herritik Aitzondora joateko bide bat eskatzen dugu, orain duguna oso kondizio txarretan dagoelako.



JULIAN MIRALLES

29 urte

Nik uste dut barra momentuan ondo dagoela, baina hori hemendik bi urtera ikusi behar da, ea hondarrarekin zer gertatzen den. Beste gauza da, aspaldian ez dela itsaso txarrik egin.



## Orioko Ogia



Frontoi ondoan  
Tfnoa: 83 01 89

### IPARRAGIRRE

### AUTOZERBITZUA

Oa kalea, 5 Tfnoa: 83 17 15



### Haurrentzako oinetakoak

San Nikolas 9, behe  
Tfnoa: 83 28 05

## LIZASO

### ERLOJU eta BITXI DENDA

Orio, Irala 3 Tfnoa: 83 10 90  
Zarautz, Ipar 6 Tfnoa: 83 17 43

### URANGA BURDINDEGIA

EUSKO GUDARI 7  
Tfnoa: 83 12 36



*Xabier Sukiaren bertsoek bukaera polita eman zioten ekitaldiari*

## Euskararen aldeko hitzarmena izenpetu zuten 31 erakunde eta elkartek

Urtarrilaren 27an, larunbatekin, Euskararen Erabilera Indartzeko Hitzarmena izenpetu zuten Orioko 31 erakunde eta elkartek Udaletxeko plenoaretoan.

Hitzarmena izenpetu duten elkartek hainbat konpromezu hartu dituzte euskara gehiago erabiltzeko beren eguneroko jardunean.

Honako hauek dira hartutako konpromezuak: hitzarmena izenpetu duten guztien arteko harremanak euskaraz izango dira; elkartetako kargudun eta langileak euskal-

dunak izango dira eta euskaraz lan egiteko gauza; beren burruko bilera, akta, gutun, txosten eta abarrak euskaraz egingo dira; aktibitateen berri emateko kaleratzen dituzten karteletan-eta euskara erabiliko da; antolatutako ekitaldiak euskaraz izango dira. Elkartek berehala hasiko dira urratsak ematen konpromezu horiek betetzeko.

### Aurrerapauso handia

Hitzarmena izenpetzko proposamena Euskara Batzordeak egin zien herriko

elkarteei 'Euskaraz Gazte' programaren barruan. Euskara Batzordea oso pozik dago herriko elkarteen proposamenari egin dioten harriera onagatik etauste du oso aurrerapauso handia eman dela euskararen normalizazio-bidean.

Honako hauek dira hitzarmena izenpetu zuten erakunde eta taldeak: Orioko Udal, EAJ, HB, EA, LAB, Jarrai, AAB, Intsumiso-taldea, Kofradia, Emakume-taldeu, San Martingo festa-batzordea, Karkara, Talai Mendi, Dilistak, Xurrumurru, Danitz-taldea, Txistulari-taldea, EHE, Balea, Arkaizpe, San Juan Elizpe, Arraun-elkarreta, Futbol-taldea, Sofbol-

taldea, Atletismo-taldea, Indar Gym, Saskibaloi-taldea, Herri Ikastola, Zaragueta, Musika Eskola eta Udal Euskaltegia.

### Ekitaldi jendetua

Izenpetzko ekitaldia eguerdiko 12etan hasi zen. Jose Miguel Makazaga alkateak egin zituen lehenbizi hitz batzuk, bertaratutakoei ongi torria emateko. Ondoren, Itziar Olariagak azaldu zuen nondik nora sortu zen aurreko legealdian hitzarmenaren proposamen hau. Gero, Jose Miguel Leunda Kultura eta Euskara batzordeko buruak hartu zuen hitza eta, korrikularia delako edo, fondoko laisterketa batetik alderatu zuen euskararen aldeko lana. Ondoren, Jabi Zabaleta euskara-teknikariak hitzarmena irakurri eta banan-banan deitur zituen elkartetako kideak izenpetzko.

Ekitaldia bukatzen, eta lunch-aren aurretik, Xabier Sukiak hiru bertso bota zituen, egindako ahalegina eta, batez ere, aurrerantzean egin beharreko aipatuz. Azken bertsoa honako hau izan zen:

*Orain bukatu ta irtengo naiz  
nagoen une estutik,  
lantzak hakarrak pasatzen baita  
seguru zuen burutik,*

*orain euskara zabal dezagun  
herrik eta mundutik,  
ea gutxinez ateratzen den  
zaharren babeslekuak.*

**OLIDEN  
HARATEGIA**

EUSKO GUDARI,2  
TFNOA 83 10 86



**ORTZAIZKA  
JATETXEA**

- \* Bataioak      \* Despedidak
- \* Jaunartzeak      \* Ezkontzak

Tfnoa: 83 32 51 / 83 30 46 Ortzaika

## Musika Eskolako bi eskusoinu-ikaslek saria irabazi dute

Intza Garin eta Ana Camino zaraustarrek lehen saria irabazi zuten Durangon egindako Euskadiko esku-soinuko V. lehiaketan.

Bi zaraustar horiek Orioko Musika Eskolan ari dira ikasten Arrixu Ulaziarekin. Intza Garinek bigarren kategorian lortu zuen saria (12-13 urte), eta Ana Caminok hirugarrenean (14-15 urte).

Arrasaten Gipuzkoako lehiaketan hiru lehen sari lortu zituzten Orioko Musika Eskolakoek. A kategorian (10 urte) Aiora Uranga oriatarra irabazi zuen, B kategorian (11-12 urte) Asier Iruretagoienak eta C kategorian (12-13 urte) Intza Garinek.

## Orio eta Aia Zarauzko Telebistan

Orio, abenduaren 27an eta Aia, urtarrilaren 18an, Zarauzko Telebistako "Tipi-Tapa" saioan agertu ziren.

Programa honek Zarautz inguruko herrien historia, kultura eta berezitasunak erakusten ditu.



*Antzerkikoak ikastolako gela batean aritzen dira*

## Antzerki-tailerra eta Idazkera-mintegia martxan

Azaro partean hasi zen antzerki-tailerra martxan, lehen urratsak aurreko urtean eman bazituen ere. Hasierako jendeaz gain beste batzuk ere hasi dira eta azkenean hamabi bat laguneko taldea osatu da, argazkian erdiak baizik agertzen ez badira ere. Aktore berriek azaldu digutenez San Pedro festetarako emanalditxo bat prestatzen ahaleginduko dira.

Bestalde, Udaleko Euskara Batzordeak Idazkera-mintegia antolatu du. Hamabi ikasle ari dira eta irakaslea edota mintegiaren koordinatzailea Joxe Ramon Zubimendi usurbildarra da. Ikañtaroa urtarrilean hasi eta ekaina bitartean izango da asteazkenero.

**ALUYOLA, S.L.**

LEIHOAK, ATEAK, TERRAZAK,

BAINU MANPARAK

P.V.C., ALUMINIOA,

POLIURETANOA

KOLORE AUKERA UGARIA

**Fatima Azpiroz Ibarreta**

Jaizkibel plaza, 8 LASARTE

Telefona: 36 22 77



**R A M I R O**

Telefaxa: 83 10 48



*Kututun*

*Balcaren kalea 2. telfnoa: 83 38 04*

**LB GELATO**

Etxeko helatuak  
eta kruasanak

San Nikolas 17. Tfnoa: 131747

## Ehun urte Aita Lertxundi hil zela

Aita Lertxundi otsailaren 24an jaio zen orain dela 160 urte Orion, eta martxoaren 8an 100 urte beteko dira hil zela. Hori dela eta, Tangerren, Chipionan, Santiago de Compostelan (bera bizi izandako herrietako batzuk) eta Orion hainbat ekitaldi izango dira urtean zehar.

Orion horretarako batzorde bat sortu da, Norbaitek parte hartu nahi izanez gero jo dezala D. Andresengana.

## Bertsolariak baserriz baserri Santa Agedan

Datorren igandean, otsailak 4, talde bat ibiliko da kantari Orioko baserrietan, ohitura zaharrari eutsiz.

Bertsolariek, trikitixaren doinuak lagunduta, Santa Agedako koplaik kantatuz egun ederra pasa nahi dute.

Irteera goizeko 8etan izango da herriko plazatik eta gombidistutu daude joan nahi duten guztiak.

Eskoletako umeak ere hori ibiliko dira, noski, Santa Agedari kantatzen eta herriko kaleak alaitzen.



Zaharrek batzorde berria aukeratu dute urte hasieran

## Zaharren Babeslekuko batzorde berria

Urtarrilaren 12an egin zen bozketa Juan Zaldua aukeratu zuten presidente. Juan Zalduak, presidente aukeratua izan eta gero, taldea berak nahi zituenekin osatu zuen. Horrela geratu da azkenean, Zaharren Babeslekuko batzorde berria: Juan Zaldua Arrieta lehendakari, Jose Lertxundi Ibargoien lehendakari-orde, diruzain Santiago Ibirriaga Iturain eta bokalak, berriz, Iñaki Izeta Iriondo, Inazio Arruabarrena Zubiria, Justina Ostolaza Brit eta Eulalia Aldaz Idarreta.

669 baxkide ditu Zaharren babeslekuak eta batzordearen lehenengo lana kuotak kobratzea izan da. "Jendeak protesta egin du kuotak txikiak direlako eta ea ez ditugun igo behar galdetu dute" esan digute juntakoek. Puntu, Tute eta Mus txapelketa ere antolatu dute batzorde berrikoek. Azkenik, pentsatzen ari dira urtero egin ohi diren sei eskurtsioak gehiegiz direla eta gutxiago egitea.



*Mutua General de Seguros*

Felipe Arostegi  
AGENTEA

Arantzazuko Ama, 5-2.esk.  
telefonia: 83 12 91

Mota guztiako aseguruak:

Empresa ertaina eta txikia

Etxea, istripuak, jubilazio planak, bizitza aseguruak, gaisotsasunak, komertzioak, kotxeak e.a.

**LAIARI**

izozkiak

Eusko Gudari, 42 Telefonia: 13 42 64

**KOLON TXIKI**

\* PINTXOAK \* KAXUELITAK  
\* EGUNeko MENUA

Tel: 83 00 44 / 13 20 26

Herriko plaza,

**Kaixo Edaritegia**

Ogitartekoak  
eta pintxo bereziak

Telfnoa: 13 07 73

## Salatxo tabernan Iñaki Kaperotxipiren lanak

Salatxon Iñaki Kaperotxipiren zuri-beltzezko erretratuak daude ikusgai otsailaren 23a arte. Zarauztar honen bigarren erakusketa individuala da.

Honen aurretik Juana Mari Gallastegirena egon zen eta arrakasta handia izan zuen kantotik ere jende ugari eterri baitzen.

## 'Orio kantari' disko konpaktoa kaleratu du Euskara Batzordeak

Udaleko Kultura eta Euskara Batzordeak 'Orio Kantari' izeneko disko konpaktoa jarri du salgai egun hauetan.

Diskoa Euskaraz Gazte programaren barruan kaleratu da eta salgai dago herriko hiru liburudendetan 2.000 piztan.

Konpaktoak 24 kantu biltzen ditu eta grabazioan herriko jende askok hartu du parte. Era eta estilo askotako kantuak dira biltzen direnak.

Imanol Urkizu oriotarrak koordinatu du lana eta kantu batzuen musika ere berak egin du.



## Gozategiz Blai Taldea oso lanpetuta dabil Argentinako buelta egin ondoren

Gozategi anai-arreben musika taldeak bat egin du dantzari talde batekin, tartean Muruamendiaraz Euskal Herriko txapelduna, eta ikuskizun ederra eratu dute, eta aurkezteria Argentinako euskaldunengana joan ziren. "Argentinako euskaldunak gorputzez Ameriketan egon arren, buruz eta pentsamenduz Euskal Herrian daude", esan ziguten Gozategitarrek, hamabost egun Argentinan egin ondoren. Hango euskaldunek harrera bikaina egin zieten. Necochean egin zuten lehenengo astea eta bigarrena, berriz, Mar de Plata eta Buenos Aires-en.

Handik etorri eta lehenengo emanaldia Tolosan izan zuten, Gozategitarrek herrialde bakotzean promozio gisako emanaldi bat egingo dute, Martxoaren 23an Oiartzunen izango da Gozategiz Blai dantza taldea.



Denda Telefaxa: 13 10 88

Almacen Telnoa: 13 25 33 Faxa: 83 57 01


◆ MOTA GUZTIETAKO ZERAMIKAK

◆ SUKALDE EKONOMIKOAK

**EROSLE**

AUTOZERBITZUA

**ERRUSTA**  
Kriston  
**bokadillok!!**



**KoastA**  
*Lasaitasuna eta giro ona*

**Kamel Ziani**  
**Gipuzkoako kros**  
**txapelduna**

Pasa den urtean bezala, Kamel Ziani oriotarrak, joan den hilaren 14an izan zen krosoan Gipuzkoako titulua lortu zuen. Oriotarrak egindako denbora 31 minutu eta segundu batekoa izan zen. Bigarrenari, Antonio Merinori, hiru segunduko aldea atera zion.

Juan Anjel Alguacilek ere parte hartu zuen froga honetan eta bederatzigarren geratu zen. Juan Anjelen denbora ere oso ona izan zen, 32 minutu eta 49 segundu.

Gipuzkoako-kros honetan Ikastolako irakaslea den Uxoa Sorazu, bigarren izan zen neskutan.

**Leunda Gipuzkoako atletarik onena beterano mailan**

Joxe Miguel Leunda pasa den urteko atletarik onena izendatu zuten beteranoen mailan.

Leunda, Udaleko zinegotzia izateaz gain, korrikalaria da eta oso marka onak ditu 100 eta 200 m.tan.



*Kepa Harategia taldekoak*

## Plaieroen talde bat Ligara eta lau Kopara

Zarauzko plaieroen erabaki da zein pasa diren Liga jokatzen eta zein taldek jokatuko duten Kopa. Gure herriko bost taldeetatik lauk Kopa jokatu beharko dute, eta bakarrak Liga. Liga jokatuko duena Pukas Surf-Aia Orio da, bere taldean lehena izan baita. Gabon, Orzaika, Oliden eta Kepa Harategia dira, berriz, Kopa jokatu beharrean daudenak.

Kasurik bitxienea Kepa Harategiarena izan da. Urtarrilaren 21ean erabaki behar zen Liga edo Kopa jokatuko zuten, beraien taldean hirugarren zihoazen eta aurreneko laurak pasatzen direnez liga jokatzen, irabazi beharra zeukan. Partidu erreza omen zuten, baina 2-1 galdu ondoren, Ligari agur esateko moduan daude, oraindik aukera txiki bat badute ere.

Ikastola eta Zaraguetako haurrek orain hasiko dute plaieroen txapelketa. Hauek ekipu bakoitzeko sei jokalari izango dituzte eta benjamín, infantil eta alebinetan jokatuko dute.

**PATXI**

Telefona: 83 18 37

**URAITZ  
LURRINDEGIA**  
**KIROMASIA** **ESTHETICIEN**

ENDAIA 3 Tfnoa: 83 18 97

**Eugenio  
Garmendia**

KONTSEILARITZA

Tfnoa: 83 44 66

**M M**

**ORRAZKERAK**  
 Tfnoa: 83 12 61

Gazte  
prezio  
bereziak

**SARASUA ERRETEGIA**

**Berezitasunak:** — Arrain zopa  
 — Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29

Tfnoa: 83 00 05  
 Tfnoa: 13 25 32

## II. Traineru jaitsieran Orio nagusi

Arraun Elkarteak hogeita hamar bat klub gombidatu batzuen ere, hamar traineruk hartu zuten parte, urtarrilaren 21ean, izan zen traineru jaitsieran. Aginagatik abiatu eta zubi parean bukatu zen, Kubai aldean ziaboga eman eta gero, 7 kilometroko estropada. Denborarik onena Orioko A traineruak egin zuen 20:31:94ko denborarekin. Bigarren Orio B izan zen, eta hirugarren Zarautz.

Astebete beranduago, 28an, banko mobileko jaitsiera izan zen Aginagatik Oriora. Lauko bi estropadetan eta doble eskull-ean Orio aurrena izan zen; bikoan, berriz, lehenengo hiru ontziak izan ziren 'horiak'.

Otsailaren 3an jokatuko da aurtengo lehen bandera. Baino hau ez da uretan izango, lehorrean baizik. Donostiako belodromoan, ergometroan. Oriotik bost hauetatik lauk jokatuko dute estropada, Ibon Urbia, Jon Salsamendi, J. A. Olaskoaga 'Aizperro', J. L. Agirre eta Iñigo Arruti 'Txabola'. Jokoan bandera eta milioi erdia. Kontrarioak S. Pedro, Donibane eta Hondurribia.



## Oriotarrak goi mailan kirolean

Kirolean importantea parte hartzea baldin bada Orion zorioneko gaude. Duela bi aste jokatutako traineru estropadan Oriok hiru traineru osatu zituen, sekula lortu ez duen marka, 42 gizon. Futbolean ekipoak ditugu regionaletan, jubeniletan eta infantiletan. Plaieroetan 5 talde ari dira seniorretan. Udaberriko futbito txapelketan 20tik gora ekipo ibiltzen dira. Garai batean ez bezela, saskibaloian, judoan eta atletismoan ere ekipoak ditugu Orion. Nesketan taldeak daude saskibaloian, sofbolean eta pelotan ere.

Baina, beste askok uste duen bezela, importantea irabaztea baldin bada ere ez gabiltza gaizki. Oriok arraunean 1995ean azken 20 urteotako denboraldirik onena egin du. Arraun entrenadoreak esportatzen hasi gara, Garmendia Zarautza, eta Rafa Zierbanara. Errealean jokalari bat daukagu, Imanol, bigarren ekipoan beste bat, Joseba Agirre, eta herriko futbol taldea preferente mailan ari da, historian lehenengo aldiz. Atletismoan Euskadiko txapelduna dugu, Kamel Ziani, eta judoan Espanako, Ibai Peña. Gainera beste talde bat kirol ikuskizunak antolatzen ari zaigu noiznahi, eta aurten Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliaren azken etapa Orion jokatuko da.

### URBAZTER ASEGURUAK

Nikolas Donearen kalea, 6  
Tel. - Fax: 13 33 14

- ▶ Transferentziak
- ▶ Lizentziak
- ▶ Eskrituroak
- ▶ Panolak
- ▶ Errrenta Aitorpenak
- ▶ Bidaia, e.o.

### GABON

Plater konbinatuak,  
pintxoak eta txokolatadak

Telefonoa: 83 06 09

**Goxoki**  
Gozategi-Kafetegia  
AZKUE

Eusko Gudari, 33. Telfnoa: 83 39 20

### ANARR

kirola egiteko eta denbora librerako  
arropa eta ekipamendua  
Telfnoa: 83 21 60

**Shock!**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA  
Of. 1 ■ 13 22 77 ORIO

Andoni Lizarralde

**“Orion ez dago mendiko  
bikletarako afizio haundirik”**

*Andoni Lizarralde, 30 urteko aiarra, bueno erdizka, udaletxez aiarra, baina elizaz oriotarra baita. Orain dela hiru urte autoak konpontzeari utzi eta bizikleta munduan sartzen, buru-belarri.*

Konpetiziota ibiltzen al zara?

Zeharbide edo trabesia eta beste proba batzuetan ibiltzen naiz, baina ez konpetizio mailan.

Nola hasi zinen bizikleta  
munduan?

14 urtetik 27 urte arte ko-  
txeko mekanikoa izan naiz.  
Orain dela hiru urte bizikleta  
munduan sartu nintzen, eta  
asko irakurri eta praktikatu  
dut. Gustora nago, hau da  
neri gustatzen zaidana: bi-  
zikletak eta arropa saldu, eta  
batez ere, bizikletak konpon-  
du.

**Ze preparazio behar da mendiko bizikletan ondo ibiltzeko?**

Negu partean, hilabete pare batean, pesak egin behar dira; kilo askorik gabe, baina askotan, Lunbarrak eta abdominalak lantzea oso importantea da. Eta bizkarre-rako pizzinan ibiltzea. Gero ia preparazioaren %70 karreretan eta %30 mendian egin behar da. Fondoak lor-tzeko karreretan eta teknika lortzeko mendian.



Afiziorik ba al dago Orion?

Ez, haundirik ez. Orion Aldapako jendea ibiltzen da, baina lehengo urtean jende gehiago aurtzen baino. Taldoko irteeretan jende gutxiago dabil, bere kaxa gehiago joaten dira. Hasieran goizeko bederatzietan hasi gineneirtetzen baina gazte jendearentzat goiz da. Orduan ez da antolamendu bat segitzen, ezkonduak, familia dutenak lehenago ateratzen dira, bestea geroago.

Zenbat denbora ibiltzen zarete?

Hiru ordu gutxi gora behera, 40-50 km. mendian eta besteetan karreteran 70 km. Zeharbideak egiteko zerbait ordaindu behar al da?

Bai ez bazaude federatu-

ta seguru bat ordaindu behar duzu, zerbait gertatzen baldin bazaiztu ere. Zeharbideak egiteko hobe da federatuta egotea. Gainera hemendik aurrera obligatu egingo dute: infantilek 3.500 pxta ordaintzen dute eta beste guztiak junior, master, tekniko eta zikloturistik 6.500 pxta. Zerbait gertatu ezkero medikuak, eta laguntza dauka zu.

Zeharbideak urte guztian  
egiten al dira?

Bai, abuztua eta abendua izan ezik urte guzian, ia astero. Mountain-bikeko zeharbideak mendian izaten dira 20-25 km eginaz eta karreterakoak martxotik aurrera izaten dira, 60 kilometrokoak, eta astero herri desberdin batek antolatzen du.

Tartean elkarteen artekoak egiten dira, 100 kmtik gotakoak.

Oso desberdina al da karrreteran eta mendian ibiltzea?

Bai, oso. Mendiko proba bat ezin da egunero egin, karritarian bezala, oso gogorra da eta. Gorakoan dena ematen duzu, eta beherakoan txikitu egiten zara, arrisku handia dago. Horregatik astean behin izaten dira. Munduko Txapelketa, bi edo hiru orduko proba izaten da, baina astean behin egiten da.

**Diru asko behar al da kirol hau egiteko, bizikleta, arroba...?**

Gauza guztietan bezala, mailaren araberakoa da behar duzun dirua. Badaude 500.000 pezetako bizikletak, baina baita askoz merkeagoak ere. Orain dela sei urte, kirol hau modan jarri zenean garestiagoa zen. Jendea Iparraldera joaten zen bizikletak eroastera, baina orain hermen ere aukera handia dago, beraz badago merke erostea.

Garrantzitsua al da arropa berezia ibiltzea?

Udaran edozein kamiseta eta kulote nahikoa da, baina negurako arropa importantea da: kuloteak, txapela, guanteak.... Jendeak sira jartzea ona dela pentsatzen du, horrela izerdia botatzendelako, baina sira ibiltzea kamisetaren gainean oso txarra da, aldapa gora izerdia botatzenduzu, bustita zaude eta beherakoan hoztu egiten zarelako.

# Zine-Kritika

## SEVEN

**Zuzendaria:** David Fincher

**Aktoreak:** Morgan Freeman, Brad Pitt, Gwyneth Paltrow, Kevin Spacey

**Aretoa:** Astoria 3

**SEVEN** indartsu hasten da, bideoak edo iragarki tankeran (Zuzendariak NIKE multinazionalaren iragarkiak egin zituen bolada batean). Izen eta irudi tarte-katuak, fotograma urratuak, kolore jokoak...

William Somerset detektibea (Morgan Freeman) txakur zaharta da, esperientzia eta jakituriaren ahotsa; hiri handian bizi izandako urte luzeek eta landutako kasu ugariet etsipenez bete dute. Nazkatua dago hiriko biolentziar, ez du ulertzen,



baina astebete falta zaio erretilatzeko eta etorkizuna etxalde batean pasatzeko asmoa du.

Aldiz, David Mills detektibe gaztea (Brad Pitt) hirratu berria da, kementsua eta

mundua jateko prest dagoeña. Emaztea etorri da berarekin, Tracy (Gwyneth Paltrow). Hiriko bakardadeak piskanaka Tracy itoko du eta Somerset izango da bere lagun bakarra.

Millsen bizitzaren gidaria bihotza da; Somersetek, ordea, zerbait esan edo egin aurretik bi aldiz pentsatzen du, bizitzaren eskolak hala erakutsi dio.

Bi detektibek elkarrekin lan egin beharko dute hiltzaile psikopata bat harrapatzeko, baina ez edonolako hiltzailea: John Dole (Kevin Spacey), ikerle klasikoa, argia, metodikoa eta, okearena, pazientziaduna. Messias edo profeta omen da eta bekatariek amaitu nahi du, horretarako bidea erahilketak bada ere.

Istorio eskema hau zincan askotan errepikatu izan den arren, **SEVEN**en indarra berezia da erabilitako estetikagatik; irudien lengoaia hitz eta soinuei gailentzen zaie, ikusteko filmea da batez ere.

Giro ilunek, etengabeko curiak, kale estuek eta auze marjinatuak filmea jazten dute; hilketak guneetako giroketa aberatsak atentzioa deitzten du eta komeni da izpirik ere ez galtzea. Istorio gehiena leku itxietan gertatzen da, espazio mugatuetan. Badirudi hiri horretan aire berdina armasten dutela etengabe. Filmearen iluntasuna eta zenbait kamera mugimenduren ondorioz, ikusleak ez du gertatzen dena kontrolatzen, tentsioa gehituz.

Filmearen amaiera bereziak zurrara sortzen du, egonezina. Amaierarik onenak ikuslea aztoratzen dute-nak dira, eta honek, noski, lortuko du.

	Egin	Egunkaria	DV	KARKARA
<i>Seven</i> Zuz: David Fincher	-	★★★	-	★★★★★
<i>Telpaude maldado</i> Zuz: Javiere Balboa	★★★	★★★	★★★	★★★
<i>Hola, estas sola?</i> Zuz: Kiar Bollaia	★★★★	-	★★★	★★★
<i>Esperando un respiro</i> Zuz: Torres Whistaker	★	★★	-	★★
<i>Mentes peligrosas</i> Zuz: John H. Smith	★	-	★	★★

★  
txarra

★★  
eskasa

★★★  
balekoa

★★★★  
ona

★★★★★  
bikaina

● IAKES GOIKOETXEA ●

# Eskolan pakia ber deu

*"Euskalduna, berritzalea, publikoa, integratzailea, pluralista, koedukatzalea, solidarioa, autonomoa eta demokratikoa izan nahi duen Herri Eskola sortu due Zumaian Ikastolak. Eskola Publikoak eta Instituak, bat eginda, eta, datorren ikasturteik aurrera, matrikula bateratua zabalduko dute; era horretan zumaiarrek beti izan duten ametsa gauzatzea lortu dute, eta datorren kurtsoan ikasten hasiko diren umeak ez dira, jada, Ikastolakoak edo Eskola Publikoak izango, Herri Eskolakoak baizik".* Hitz hauek ez dira nireak, 1995eko martxoaren 4ko Eginetik ekarri ditut hona, hitzez hitz.

Getarian beste horrenbeste gentatu zen urte batzuk lehenago, Herri Ikastolak eta Eskola Publikoak bat egin zuen, eta orain eskola bakarra eta euskaldun hutsa dago Getarian. Nik dakidala, behintzat, bi herri hauetan, Zumaian eta Getarian, ez da arazo berezirik izan bateratze hau dela-eta, eta proiektuek aurrera darraite.

Nire ustez, Orion ere horrelako zerbaite litzateke onena. Niri, behintzat, gustatu egiten zaizkit Egin-eko artikulu Zumaian sortu den eskolari eman-dako adjetibo guzti-guztiak. Eta uste dut ez dagoela motiborik horretara ez iristeko.

Hala ere, ez daukat asmorik horretaz jarduteko. Batetik nire ezjakintasunagatik, gai honen xehetasunei dagokienan; eta, bestetik, denei aitortzen die-dalako eskubidea nahi duten hezkuntza eredua hautatzeko; eta Orioko kasan, bi eskolek bat egiteko, edo bakotzak bere aldetik segitzeko.

Gai horien beste alderdi bat aziertu nahi dut, horrek jenitza zuzena dueña eta, aspaldi honetan, oso kezkatuta naukanu. Ni eta herriko beste pertsona asko ere bai. Bazterretan entzun ditudanengatik, behintzat, hori pentsatzen dut. Gaia eskola-mapa dela eta sortu den giro gaitoa da, liskarrez betea. Horrexen froga izan zen udaletxean, gai hori tratatzeko egin zen batzarrean, gertatutakoa: hitz itsusiak, irainak...

Bakoitzak bere bidea egin nahi badu,



**IÑAKI ITURAIN**  
EUSKARA TEKNIKARIA

besteekin zer ikusirik gabe, oso ondo. Bain... badago baina bat: umeak, es-kolumak, ezin ditugu nahastu hone-tan. Dagoen elkarrekiko mesfidantza, lehia eta, inoiz, mespresuzko jarrera ezin diegu haurrei kutsatu. Gure ezta-baidak, ezinikusiak eta txikikeriak ezin dizkiegu haurrei pasa. Ezin ditugu gau-zak bere onetik atera. Umeek zer ikusi, hora ikasi! eta hori etorkizunerako oso oso arriskutsua izan liteke.

Saldu zidaten prezioan salduko di-zuet nik ere: abenduan Zumaiatik gona-bitea iritsi zen Oriora, hemengo esku-lumeak Zumaiara joan zitezten txotxon-giloa ikustera. Orioko Udalak autobusa jarri zuen bi eskoletako umeak erama-teko. Norbaitek erabaki zuen bi escole-

tako haurrak ez zirela batera joango. Ondorioz, Udalak autobusaren ordez mikrobusa jarri behar izan zuen elkarrekin joateko trabarik jartzen ez zuten eskolako haurrak eramateko. Beste eskolakoak beste autobus batean joan zi-ren.

Bi eskoletako haurrak ez batzeko bakoitzak bere Olentzero ateratzea, tira! Bain Udalak jarritako autobusean bi eskoletako umeak batera joatea gale-ratzreak marka guztiak hausten ditu.

Horren atzean dagoen jarreraren on-dorio dira umeen artean gertatzen ari diren beste itsusikeria batzuk ere. Esate baterako, ume batek Musika Eskolara joan nahi ez izatea, han beste esko-lakoak dabiltsalako eta farre egiten diot-elako. Edo Santo Tomas egunean, ka-lean txistorra partitzen jarri eta, eska-tzera etorritako batia ea zein eskolat-ko zen galdeztzea. Hauek ondorioak besterik ez dira, jarrera baten ondorio-ak, udaletxeko pleno harian agerian gelditu zen jarrera batenak.

Kanpotik etorritako seme-alabei "koreano" deitzen genieneko garaiak iraganekoak zirelakoan nengo-en. Bain-hara non beste tankera batekin ber-piztuta agertzen zaizkigu! Non eta escola giroan, hezkuntzan, heziketan! Justu bestelako baloreak erakutsi beharko liratekeen esparruan. Ezin dugu bide horretan aurrera jo. Larrutik ordainduko genuke. Ezin ditugu bi komunitate sortu. Ezin ditugu hesiak eta mugak eraiki haurren artean.

Horrela segitu ezkerro, urte gutxi barru, Orion bi traineru beharko geni-tuzke. San Pedro eta Orioren arteko gatazka —azken bi urte hauetan ure-tatik kanpo gertatu denaz ari naiz— ez da batere gustokoa izan niretzat, baina gu-txinez batzuk besteengandik 25 kilo-metrora bizi gara. Antzeko gerra bat Orion bertan piztu ezkerro askoz oke-rragoa litzateke. Izan ere gerrak itsu-siena eta inzibilena gerra zibila baita. Euskaldunok aspalditik dakigu zer den "auzolanean" egitea lana. Uste dut ga-raia iritsi zaigu haurtarako, *Oriyon e pakia ber deu eta!*



## Mendiko bizikletako proba Aian

Otsailaren 11n (igandea) eta iaz izan zuen arrakasta ikusi eta gero, berriro mendiko bizikletako proba antolatu da. Ibilbidea pasa den urtean egin zenaren antzekoa izango da antolatzaleek esan zutenez. Irteera goizeko 10etan izango da herriko plazatik.

Izena ematea egun berean izango da eta gogoratzeko modukoa da, bukaeran hamaiketako bikaina izango dutela parte hartzen animatzen diren bizikleta-zale guztiek.

## KANUA JATETXEA

*Hamaiketakoak,  
bazkariak eta  
afariak egiteko  
kategoriko lekua*

83 43 22



## ALTXERRI

Jatetxea

Telefonoa: 83 07 62

## ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 36 eta 56 plazakoak  
Bidaiatu eta ezkontzeta edo sagardotegira joateko

13 28 93 / 83 08 80 mugikorra: 908-77 37 67

## Harrijasotzaileen arteko desafioa

Datorren otsailaren 18an eta Aiako probalekuau, Agustin Arruti "Landarbide" aiarra eta Jabi Agirre "Endañeta" zumaiarra lehian izango ditugu. Berrehun kiloko harri errektangulararekin bost minutuko hiru txanda egingo dituzte. Gogora dezagun abenduaren 3an saio polita egin zuela Aiako frontoian harri berdinarekin, bost minutuko bi txandatan hamar aldiiz jaso baitzuen guztira.

## Argazkilatza ikastaroa kultur etxearen

Oinarrizko argazkilatza ikastaro bat izango da martxoan eta apirilean. Ikastaroa Luis Iturburuk emango du. Bere asmoa da astean behin, ordubete edo ordu ferdiko saloak egitea.

Zehaztasun gehiago eta izen ematea, kultur etxearen egin dezakezue.

## Luisa Agirretxe: "Jendea ez dago ohituta etxekoa ez den laguntza jasotzen"

*Aiako ongizate zerbitzuko gizarte laguntzailea da eta bost urte daramatza bertako udaletxean. Berak aitortu digunez, Aia bezalako herri txiki batean, zerbitzu sozial edo laguntza sozial ezberdinak martxan jartzea askoz ere zailagoa da, beste edozein herrian baino. Oztopoak oztopo, halere, urtez urte zerbitzuak hobetuz doaz, eta lanean aurrera gogor egiteko gogoa azaldu du gure elkarriketatuak.*

IDOIA ZARAUTZ

**KARKARA:** Ze arazo sozial bizi ditu Aiako herriak?

**LUISA AGIRRETXE:** Arazo sozialak bai Aian eta bai beste herri batean berdintsuak izaten dira. Toki guztietan daude arazo sozialak: marginazioa, bakardadea, pobrezia, famili harremanak, ea... Arazoak badau de, baina ez da herri problematika. Hala eta guztiz ere, kontutan izan behar dugu Aia nekazal giroko herri bat du gula; jende gehiena oraindik ere baserrian bizi da, eta bere bizitza guztian hala bizi izan da. Jende honek askotan arazoak izaten ditu, edozein pentsio, edota etxebizitzak edo baseria berritzeko

behar duten diru laguntza jasotzeko jествоak egiteko garaian. Ez dakte nora joan eta zer egin. Askotan inongo pentsio edo dirulaguntzarik jaso gabe gelditzen dira ez dakitelako zer egin behar den. Beraz, tipo honetako trámitazio guztiak zerbitzu honetatik bideratzen ditugu, eta behar duten laguntza eskauntzen zaie.

**K.: Arazo guzti hauei aurre egiteko, ze zerbitzu sozial eskaintzen diozue herritarrari?**

**L. A.:** Ongizate sailetik eskauntzen ditugun zerbitzu guztiak, 'oinarrizkoak' izendatzen ditugu. Zerbitzu horiek eskauntzeko programa desberdinak dauzkagu: informazio, balorazio eta orientazio deritzogun pro-



grama; familia eta elkarbizitza; pobreziaaren aurkako programa, ea... Programa honen bitartez, edozein behar soziali buruzko informazioa eskauntzen diogu herritarrari.

Bigarren programa garrantzitsua bezala, familia eta elkarbizitza deitzen dioguna dauzagu. Familia batetan harreman arazoak edo baldin

badaude, guk etxez etxeko zerbitzu baten bidez arazo hori soluzionatzea dagoen ala ez ikusten dugu. Laguntza hau, pertsona zaharrak edo ezinduak etxeen mantentzeko ematen den zerbitzua da. Eskaintzen den laguntza bi motatakoia izan daiteke: laguntza domes tikoak, etxeko lanak egiteko edo bestela laguntza pertso-

### SEGA

ezkontzak, bataioak,  
jaunartzeak

Tínoa: 83 07 16 Erreka auzoa

### ARISTERRAZU

Jatetxea

Urte berri on opa dizuegu

San Pedro ☎ 83 45 21

### JAUREGI

Bakailua, legatza, kogotea,  
txuleta, arkumea.  
Etxeko postreak  
☎ 83 02 15

# EUSKARAZ GAZTE

## III. Literatur Lehiaketa

---

# GEHIGARRI

# BEREZIA

---

### Saritutako lanak

#### Ipuinak

1. Saria: Neguan elurrik ez bada, ama! udaberrian  
lorerik ez? *Nere Manterola*
2. Saria: Santiren borda. *Itziar Urretabizkaiia*
3. Saria: Hego-haizeak jotzen duenean. *Jokin Salsamendi*
4. Saria: Riad. *Alazne Goenaga*

#### Olerkiak

1. Saria: Denbora. *Xabier Sukia*
2. Saria: Hutsik
3. Saria: Sega zaharra. *Xabier Sukia*
4. Saria: Ni gixaixo. *Ibai Esoain*

# Neguan elurrik ez bada, ama! udaberrian lorerik ez?

Nere Manterola

Hutsik dago Eusko Gudari kalea. Euriaren tik-tak doinu leunaren konpasean txakur bat dator, hanka bat arrastaka, baba dariola. Gose da, begien urduritasunean nabari zaio. Begi biak alde batera eta bestera mugitzen ditu hondakinen bat edo beste bilatu nahian.

Kortina zuri baten atzetik bi begi atxeki zaizkio txakur herrenari. Metro eta oso gurxi den mutiko mardula —gizontxoagian— errukitsu begiratzen du txakurra eta ia nahigabe 'Herren' jarri dio izentzat. Haragi mutur bat eman nahiko lioke, baina amak dagoen lekutik ez mugitzeko agindu dio, '*Erregeek ez dizute ezer ekarriko ikatza baino!*' oihukatuz.

Ama komunean dago, haurtxoak edo gizontxoak egin duen barrabaskeria garbitu nahian. Afeitatu egin behar omen zuen, aitarrok bezala. Kutxilla prest jarri du, hora du apar pila bere aurpegi txikira... baina *after shave* delakoa falta. Igo da bainera muturrera, kostata iritsi da armairura, hartu du berak *after shave* dela uste duen potea eta, jeisterakoan, jauzi zaio potea eta hornitu du bainera guztia txanpuz. Begi beldurtiekin geldirik geratu da pare bat segundutan, eta amak ez duela txintik entzun ziurtaturik, hasi da bertiro beste *after shave* baten bila. Ez du, ordea, benak nahi duenik topatzen. Ikusi du urretian aitaren kolonia bertia, begien dizdirarekin ittipar itxi bat... Igo da bainera muturrera, baina urreti dago, ez da heltzen. Joan da bere gelara eta hartu du aitak inongo arrazoirik gabe oparitu zion ezpata. Berriz komunera. Luzatu du ezpata. Heldu da! Bultz egin du. PLAST!!! eta jauzi zaizkio hirubat kolonia lurrera. Begi beldurtiekin geldirik geratu da pare bat segundutan. Ireki da egongelako atea eta jauzi zaio mundua lurrera haur gaixoari. Lasterka dator ama pasilutik, 'bera ez, berari ezer ez, *Jasuna mezedez, bera ez...*' dabilki marmarka ahoan. Zer gertatu ote den jakin nahiaren beldur mingotsa. Sartu da komunera eta ikusi du haurra geldirik, burutu duenari so. Isilean lasaitu da ama, baina...

—Eneko!!! Zer da hau? zer egin duzu? Ezin al duzu

momentu bat ere egon ama óndoan ez duzula gaiztake-riarik egin gabe? —astindu leun bat eman dio atzekal-dean.

—Joan egongelata! Eta kontuz gero zer egiten duzu. Erregeek ez dizute ezer ekarriko ikatza baino!

Ez du malkorik isuri gizontxoak, baina oraindik ere begiak lehertzeko zorian diru. 'Herren' begira dago, haragi mutur bat eman nahiko lioke, baina amak dagoen lekutik ez mugitzeko agindu dio '*Erregeek ez dizute ezer ekarriko ikatza baino!*' oihukatuz. Eta berak ez du ikatzik nahi, berak txirrindua, eta patinak, eta larruzko baloia, eta futboleko botak, eta guanteak, eta patinetak, eta moroa, eta *play mobilen* barkua, eta... ikatza ez. Beraz, ondo portatu behar du, eta ez da mugituko. Begiratu dio txakurrari eta ikusi du bere burua haragi-muturra ematen 'Herreni', eta ikusi du Baltasar berari begira irripar ezti batez '*Zein zintzoa den mutiko hau, eiskatzen duen guztia emango diogu, e Meltxor?*' esaten.

Ireki du hozkailua, bilatu du haragia, pasatu du komuna hanka puntretan, ireki du atea eta... Badoa!

Jetxi diru eskilerak korrika. Iritsi da kalera. Gora begiratu du lebenengo, eta eskua luzatu, badaezpada, Baltasarrek hor dagoela ikus dezan. Hankak dardarez diru: lebenengoz da bakar-bakarrik kalean. Begiak orain, urduri, batetik bestera mugitzen ditu txakurraren bela.

—Herren, Herren! Non zabiltza. Begira zer ekarti dizudan. Herren! Zatoz hona —bere parean dena bakarrak ikusten du, ez du bidearen beste aldea ikusten. Aparkatura dauden kotxeen atzean izkutatzen zaio kalearen paisaia. Kotxe artetik igaro da, bidera salto egin, eta beste espaloiraino iritsi nahi du, baina ez du presarik. Ez du ziztu bizian datorren autoa ikusi, ezta entzun ere, eta umeak aurrera dirau. Ozta-ozta ikusi du gidariak hain izaki txikia errepidea pasatzen, ozta-ozta zapaldu du frenoa, ozta-ozta ez du harrapatu autoak haurra... baina haurra ez da konturatutu ere egin.

Balkoira jende anitz hurbildu da frenu-hots bortitzaren ondorioz. Irten dira dendariak ere kalera, berdin tabernetako jendea. Eskabitxeri aurrean jolasean zebiltzan haurrak ere inguratu dira. Gidariak eskuaz aurpegia estaltzen du, emakume bat da, haurren baten ama seguruasko. Inguruko jendeak lasitzeko eskatzen dio, haarra ondo dagoela, lasitzeko, baina emakumeak, 'barrapatu dat ia, barrapatu dat ia!' oihukatzen du behin eta berriro, harrapatu izan balu zer gerta zitekeen imaginatz, sekula barkatuko ez zitzatekeen gertakaria, bere gibelean bizitza osorako zama.

Eneko negarrez ari da. Ingurukoek momentuaren ikararen eraginez ari dela suposatzen dute, behin eta berriro laztandu baitute milaka eskuk gorputza hautsirik edo duen ziurtatu nahian. Baina Enekok ez du horregatik negar egiten, 'Herren' ikusten du urrunean saltoka ihesi, hainbeste jende ikusirik, beldurraren eraginez, ihesi. Enekok zerura so egiten du, eta Baltasarri nola azalduko dion jendetza hori berak ezer txarrik egin gabe bildu denik, galdetzen dio bere buruari.

—Nongoa da haarra? —galde egin du amona izutu batek — Non du bere ama? —baina ez dago erantzunik. Antza denez, ez du inork ezagutzen etengabeko negarra darion haur txikia.

—Hau Muruanekoada... mutur hori ezaguna dut. Zer da Eneko, non da amatxo? —Umeak bere izena entzun eta bira eman du, norbait ezaguna topatu nahian, baina bi begi heltzek ez dute nehor aurkitu.

—Ez al dira muruatarak hortxe bizi? Ze Muruataz ari zarete? —galde egin du betaurekodun gizon batek.

—Murua asko ez dira ba hemen... Joxe Muruaren alaba, usurbildar batekin ezkondua dagoena... nola da gizona? Inazio izan daiteke.

—Aita nor du honek orduan, 'Moulinex-en' lan egiten duena? Bai, bai hementxe bizi dira. Hirugarren pisuan edo. Joko dut tinbrea, ia norbait dagoen. Nola da? Umm... Ah! Bai, Murua. —Emakume gizen batek zeharkatu du errepeidea. Umeak negar egiteari utzi dio. Gidaria lasaitu da apurtxo bat.

—Bai, nor da? —erantzun du ahots zakar batek hariazen bestaldeetik.

—Aizu, barkatu, muruatarak hor bizi dira, ezta?

—Bai, baina nor da?

—Zuen semea ia kotxe batek harrapatu du. Beno, zuen

semea dela uste dugu.

—Gure semea? Kotxe batek? Ez, ez, ezinezkos da, nire semea egongelan dago. —Irriparre bat ere irten zaio emakumeari 'borrelakorik!' pentsatzen duen bitartean. Bain, non du semea? Egongelara lasai-lasai joan da. Ez du Eneko ikusten. Korrika doa sukalderra. Oihuka hasi da, baina semerik ez. Irten da emakumea balkoira. Jende multzo bat ikusten du, baina bere semerik ez. Bapatean, negar hotsa entzun du. Ezaguna zaio negar hori. Begiz jo du haarra. Ia bihotza atera zaio bularretik. Laino zuri batzuk agertu zaizkio begi aurrean. Ezin du zuzen ibili, ez du ondo ikusten... baina korri egiten du.

Jende multzoaren artetik emakume bat doa bultzadak emanet aurrera, zoraturik dagoen emakume bat dirudi.

—Eneko! Eneko! —Iritsi da emakumea. Hartu du negarrari berriro ernan dion haurretua besoetan. Besarkatu du. Pasatu dio eskua gorputzetik, zauriturik ote dagoen ziurtatu nahian. Ezer ez duela ikustean, musuka hasi zaio haurrari. Jendea sakabanatzen hasia da, gidaria bera ere etorría da amari zer gertatu den azaltzen. Amak ere, bere semeak kalean bakarrik zer egiten duen aditzera eman du, baina inork ez daki zergatik jetxi den umea bakarrik kalera.

—Eneko, zertara jetxi zara? Nor ikusi duzu? Zer egin nahi zenuen?

—Eh... txakurra ikusi det leihotik ta gose zegoela igerru diot ta orduan pentsatu dut ba haragia ematera jeixtea, Baltasarrek ikusteko ona naizela ta komunean gertatu dena deskuido bat besterik ez dela izan eta gero jende hau dena etorri da eta txakurra bildurtu egin da eta orduan korrika joan da eta orain Baltasarrek pentsatuko du ni gaiztoa naizela eta ez dit ezer ekarriko... ikatza bakarrik ekarriko dit eta nik aitaraxori emango diot ze berak esan zidan nahi zuela ta hori eskatuko ziola Meltxorri, ze nik Baltasarri eta berak Meltxorri, ta nik aitarri emango diot ikatza ta orduan ni ezer gabe geratuko naiz eta nik bizikleta eta patinak eta baloia nahi ditut gutxinez eta gero Baltasarrek nahi badu guanteak eta patinetea eta motoa eta play-mobilien barkua ekarrea... baina horiek nahi badiru. Ta orain ni ezer gabe —malko bi irristatu zaizkio masaietarik ahora iritsi arteaino.

Egon da barre egin duenik. Egon da hunkiturik malko biri ihes egiten utzi dionik. Egon da aurpegi hitsa azaldu duenik.

—Zenbat urte dituzu? —Enekok kostata lau behatz azaldu ditu— Lau urte besterik ez; ez, oraindik ezin zaio esan, goizegi da.

—Ba... gaur bertan bere aitarekin hitz egingo dut, eta sentitzen dut, baina nahiago dut seme bizi bat, seme hila eta ameslaria baino... eta esan behar bazaio, esan egingo zaio eta kitto. Atzo ere, Baltasarrek ikus zezan ontziak fregatu nahi izan zituen eta hiru plater hautsi zituen, gaur hau; eta bihar zer?

—Bai, horren sarturik badauka, hobe agian, esatea, ezbeharren bat tokatu baino lehenago, ze..., gaurkoan izugarria gerta zitekeen.

—Ex dut pentsatu ere egin nahi. —Bost bat minututan egon dira hitz egiten azkenerarte geratu direnak, baina ez dute ezer erabaki, esan behar zaion ala ez. Hori muruatarrek erabaki behar dutela komentatu da azkenean, azken finean, beraiena baita haurra.

—Nire ustez esan egin behar zaio. Badakizu zer gerta zitekeen gaur? Ia semerik gabe geratzen gara. Inaxio, ez gara plateretaz ari, semeaz ari gara, dugun seme bakarrak. —Muruatarrek eztabaidan ari dira. Gizon gazte xamar bat sofan eseririk dago, hiru egunetako bizarra izango du. Pijama galtzak ditu soinean, eta niki zuri bat. Niki zuriaren goikaldetik, bi ile ageri zaizkio, illetsua den seinale. Irriparre bat du ahoan, momentuak barre egiteko ezer ez duen arren, begiak alde batera era bestera mugitzen ditu, emaztearen pausuen jarraitzaile. Gizona baino gaztexeagoa den emaztea, batetik bestera dabil, noizean behin, sukalderra so egiten du, jolasean dabilen umea han ote dagoen ziurtatu nahian. Urduri dagoela nabaritzen zaio. Bere senarrak begirik kentzen ez dio-

nean gertatzen zaio, urduri jastzen da... eta senarrak badaki.

—Baina hamabost eguneko gauza besterik ez da, hamabost egun hauetan ondo-ondo zaindu eta kitto... denak izango ditugu, bai semea eta bai ilusioa!

—Zer ari zara esaten? Ez dudala haurra ongi zaintzen? Zuk baino gehiago egiten dut! Zuk 'tori hau Eneko' 'begirata hau', 'tori goxokia'. Dena ona, eta, jakina, nik izan behar dut txarra, ezta?

Gizona zutitu egin da, emazteari gerritik heldu eta belarriba mintzo zaio:

—Ez nuen hori esan nahi. Badakit ondo zaintzen duzula eta askotan ezinezkoa dela bere gainean egotea momentuoro. Ez da txakur bat, ezin da soka bat jarri eta 'txokora' esan. Haur bat da. Horregatik mantendu behar dugu sekretua, nola kenduko diogu ilusio hori. —Emaztea senarrari bizkarra ematen ari zaio. Malko barruk ihes egin diote momentuaren eraginez. Gerrita etaman ditu bere eskuak, senarrak dituen leku berera, eta gogor esturu.

—Gehiegi maite zaituztet biak ere, norbait galtzeko. Barkatu, neuk ere ez nuen hori esan nahi —biria eman eta ezpainean muin eman dio—. Ez diogu esango geu garenik erregeak, sekretua mantenduko dugu...

Jolasean ari den Eneko geldirik dago orain. Utzi du karmioia bazterrean eta geldirik dago. Ezin du arnasanik hartu, ez zaio iristen haizea biriketara, lainotu egin zaio bista, indarge ditu hankak... entzun duena ezin du sinetsi... jauzi zaio mundua lurrera...

# Santiren borda

## Itziar Urretabizkaia

Ezin dut lorik hartu. Dagoeneko mila jira-bira eman dirut gorputzaren jarrera aldatuz eroosoago egoteko, baina ezin. Nire inguruan lagunen lo arnasa nabari dezaket, denak baketsu. Buelta erdia eman eta zakuaren kremailera ene bizkar biluzia zulatu nahirik dabilenean, hotz zirrara batek astindu nau. Giroa ere hozten hasia da

eta uste dut hobe izango dela jertse bat janztea. Nekez bilatu dut linterna txikia, bai, txikia baina aldi berean potentea, izeba Arantxak oparitu zidan mendira gentzela jakin zuenean. Hau piztu orduko nire lagunei so geratu naiz, goiz erori dira denak loaren atzaparretan eta ez da harritzekoa, gogorra izan baita gaurkoa. Bi orduz

baino gehiago ibili gara oinez maldan gora gure bizkar gaixoek motxila zamatsuen azpian laguntza erregutzen zuten bitartean. Eta eguzkiak ere ez digu gehiegia lagundu, irrifat zitalarekin bere bisitaren aztarnak utziz gure gorputz nekatueran. Jertsea hartzea lortu dut eta soinean jarri ondoren zakuan sartu naiz berriro ere. Bainaz gertatik ezin nau loak hartu? hotzarengatik ez da izango behintzat. Agian urduri nagoelako, edo bestela luraren gogortasunarenengatik, baina ez, nik uste leku hau dela. Leku madarikatu hau eta honen inguruak dabilen istoria.

Orain hamar bat urte Santi izeneko gizon bat bizi omen zen borda horretan bertan. Betidanik maite izan zituen menda era natura baina emakume batetaz mai-remintzean hasi zitzaizkion arazoak. Berarekin ezkontzeko eskatu zion eta neskak baietz erantzun ondoren, igande batean ezkontzekotan geratu ziren. Egun hartan Santi oso dotore iritsi zen elizara, kolore ilunez jantzia goitik behersaino; bere aurpegiko poza ez balitz, hilera batetara zihola esan zitekeen. Baina poz hori piskanaka urduritasun bihurtzen hasi zen, bizitza osorako leialtasuna hitz emango zion emakumea ez baitzen inondik ere azaltzen. Eta, azkenik, gainean zeraman urduritasuna tristura bihurru zitzaion herriko batek bere emaztegaia postariarekin Australiara aldegin zela jakinarazi zio-nean. Honen ondoren, hain etsita geratu zen Santi ezen beste pertsonekin gehiago harremanik ez zuela edukiko agindu zion bere buruari. Horretarako, bere mendiko bordara itzuli zen, gizakienganako konfidantza guztia galduz.

Gau batez, ohean zegoela, izugarrizko haizea hasi zuen. Borda ondoko zuhaitzak bortizki astintzen zituen eta haien adarrak leihoko beiren aurka borrokatzentz zuten etxebarruko babesera sartu nahian bezala. Mendian zeramatzan urteak kontutan harturik, inoiz ez zuen Santik horrelako haize-boladarik sentitzeko aukerarik izan. Bat-batean, norbaitek atea jo zuen. Bi kolpe bakarrak izan ziren baina nahikoak Santi urduri jartzeko. Eskupeta hartu eta, belarria ateari itsatsita, galdezu zuen:

—Nor da? —baina galdera honek ez zuen erantzunik izan.

Orduan piskanaka atea ireki eta zuriz jantzikoa emakume eder bar azaldu zitzaion, ezkonberria ziurrenik.

—Barkatu, ikusi al duzu nire gizona? —eta Santik bi aldiz pentsatu gabe tiro bat bota zion ero bat bailitzan.

Ez zitzaion gustarzen jendeak bere amodio frustratuaz parre egin zezan eta hura ez zen lehen aldia. Zergatik egin behar zion horrela parre jendeak? Baez! Horiez zen berriro gertatuko. Emakume maltzur hura hartu eta etxeak non gorde pentsarzen ari zen artean berriro ere atea jo zuten.

—Nor da?

—Jauna, ireki atea mesede!

Beldurrez, atearen zirkitutik begiratu zuen, doi-doi ikus zezakeen ateaz bestalde zegoenaren aurpegia. Muril gazte dotore bat zen, urduri zirudien.

—Asko sentitzen dur ordu hauetan esnatu izana, baina ez zenuen nire emaztea ikusiko, ezta? Gaur ezkondu gata, ikusten duzunez, eta mendira bueltatxo bat ematera gentozelarik, bistatik galdu dut. Ez zen, bada, hemendik pasako?

Bapatean, Santik buruaren pisua nola bikoizten zen somatu zezakeen eta jadanik odola ez zitzaion aurpegira iristen.

—Ez —lehor batez erantzun zion.

—Beno, barkatu berriro. Gabon.

Bost tona inguru pisatzen zituen buru hartatik 'Zorte on!' edo antzekoren bat esatea ere pasa zitzaion, baina isilik geratu zen, bazeikien alferrik zela. Berea izan zen hoben guztia eta beragatik bakarrik pertsona errugabe bat hilik zegoen eta egindakoak ez zuen beste bueltarik. Lehenbailehen handik atera beharra zegoen emakume hura. Gorputz mardul hura bizkarrean hartuta, bordan zeukan palatik handiena hartu eta kanpora ateraz zen, gauaren illunera. Ezin zuen oso urrutira joan, gizona ere handik bueltaka baitzebilen. Bordaren atzealdea zela lekurik onena pentsatu era ia bukaerarik gabeko zuloa egiteari ekin zion. Pare bat ordu igaro ziren gorputua bertara jaurti eta estaltzen hasterako. Hain zen ederra! Makina bat burutazio izan zituen baina hobe zen gauzak zeuden bezalaxe uztea. Ez zuen berehalakoan ahaztuko gau hura!

Hurrengo hilabeteak oso gaizki pasa zituen Santik. Polizia handik ibili zen bueltaka etengabe galderak egiten eta beren zakurtzarrak muturra leku guztietan sartu nahian. Baina bere zorionerako ez zuten ezer aurkitu.

Urte bat pasatu zen, urte bat hain zuzen haizea berriro hasi zuen gau hartan. Piskanaka indarruz zibloan haizea

eta borda ondoko zuhaitzera adarrak beiren aurka borrokatzetan hasi ziren berriz ere. Santiri ezaguna egin zitzaion... berriz ere haize hura..., egun madarikatu hura gogorarazi zion eta horrekin batera tripek buelra eman zioten. Bat-batean, atea jo zuten. Soinu ezagunegia egin zitzaion hura ere tamalez. Dena berdin gertatzen ari zen!

Zoritzarreko gau hartan gertatutakoak bizi behar al zituen bertiro? Beldurtak astindu ederra eman zion gorputzari eta oherantz abiatu zen erdi hilda. Bitartean atea irekitzen ari zen piskanaka eta garbi zegoen norbaitek eusten ziola, bestela haizeak berehalakoan irekiko baitzuen. Santi dardarka zegoen, aurpegia zurbil, ez zen erreakzionatzeko gauza izan aterantz begiratu eta aurrez-aurre orduan urtebete ustekabean hil zuen emakumea ikusi zuenean. Haizeak soineko txuri izandakoaren oihalak mugimendu finez dantzan jartzen zituen. Emakumeak begi zorrotzez begiratu zuen Santi denbora luze batean, bazirudien bere beldur aurpegia ikustea gustatzen zitzaiola eta bazekien bere itxurarekin hori lortzea ez zela zaila izango: ezpainak zaharkitu eta pitxatuta zituen, begiak horiruta eta azala zulatua. Azalean zituen zulo horietako batzuetan arrak ikus zitezkeen oraindik gorputzean geratzen zen haragiaren tripa beterzen. Halako batean, emakumeak besoa altxatu eta behatza Santirengana zuzendu zuen. Mugimendu hura nahikoa izan zen Santiren bizitzarekin amaitzeko. Santiren bihotzak taupadak emateari utzi zion. Orduan, irrifarre txiki bat nabaritu zen emakumearen ezpaineran eta, honekin batera, beheko ezpaina-

ren zati bat erori zen lurrera. Baino argi zegoen ez zitzaiola importa, buelta eman eta atea itxiz desagertu baitzen.

Baina gaurko gau honetan, alpetrik ditut lo hartzeko ahaleginak. Ez naiz ausartzen begiak ixten zerbait geriaruko zaidan beldurrez. Gainera, haizea dabil... Lagunak esnatuko nituzke baina denak lakati bat naizela esaten hasiko lirateke eta ez dut hortik pasa nahi. Noiz iritsiko ote da egunsentia? Haizea gero eta indar gehiagoz dabil eta zuhaitzen adarrak soma ditzaket borda honetako beiren aurka. Ene, egia izango ote da istorioa? Ai ama! Amatxo maitea, atea jo dutela! Zer egingo dut orain? Niri ez, mesedez, igandero mezatarra joango naizela hitz ematen dut eta ez dut gehiago gezurrik esango! Korrika gerturatua naiz atea dagoen lekura eta krisketa itxi dut, hor baldin badago ez da hona sartuko, ez horixe! Minutu batzuk egon naiz ateari bultzaka hankarekin, buruarekin, eskuehin, malkoak begietatik isurtzen zaizkidan bitartean baina ez dut kontrako indarrik jaso. Lehiotik begiratu dut eta han ikusi dut urrutian, ilargiaren argipean korrika, haizeak bere soineko txuria astintzen duelerik basorantz abiatzen. Momentu batez ikusi egin nauela iruditu zait baina hobe horretan ez pentsatzea.

Beno, ziur nago lagunei hau kontatuz gero, etotzat hartuko naurela. Egokiagoa izango da esperientzia hau niretzar bakarrik gorderzea, bestela, nork sinestuko luke horrelako istorio bat? Orain zakuan sartuko naiz era lo egingo dut. Oraingoan bai... loak hartuko nau...

# Hego-haizeak jotzen duenean

Jokin Salsamendi

Igande zen. Urriko igande beroa. Urtero bezala hego-haizeak bere bisita egin zuen eta herria bero lama nardargarri batez estali zuen. Zerua urdin-urdina ageri zen baina sargoriak herritarren begiradak lausatzen

zituen. Kanpandorreko erlojuak ordubata zela salatzen zuen eta eguneko tenperaturik altuena markatzen zuen banketxeko termometro erraldoiak. Jendea elizatarian bildurik zegoen —meza nagusia amaitu zen seinale—

eta dagoeneko hasiak ziren haurrak beren izeba eta amonak non zebiltzan kontrolatzen, ondoren, maltzurki agurtu eta xorro-xorro paga eskatzeko. Bakoitza bere teknika zuen baina gehienek 'Amonas...' goxogoxo batez ematen zioten *eraikari* hasiera eta, aingeru surpegi batez lagundurik, aise lortzen zuten helburua. Baina behin *txakurraren* eskuratu ondoren 'Agur' lehor eta motz bat entzuten zuten senideek eta konturatzeako desagertua zen beren *umetxoa*. Baziren denbora aurrezearren zuzenago jokatzen zutenak, baina, azken finean, denen emaitza berdina zen.

Egun hartan ez zen beste gairik. Beroa gora eta betoa behera. Horretan zihardutelarik, aldapa jeisten hasi ziren. Piskana, batak bestea imitatzuz, zimitarioa atzean utzi eta goiko kaletik beheko kaleruntz abiatu ziren. Aldapa da bi kaleak lotzen dituena. Kale baino hobe, bi auzoak batzen dituena. Herria fisikoki bitan banatua dago eta muga Eliza eta Udaletxea lotzen dituen harriko malda da. Eliza goiko kaleko atea da eta Udaletxea, aldiz, beheko kalekoa. Herritarren esanetan Udaletxea eta Eliza (eta, jakina, aldapa ere ez) ez dira ez goiko kale eta ezta beheko kale ere. Eraikiak direnko lurraez ez dira inorenak. Denek diotenez, Aldundia (Diputazioa) da jabea.

Aldapan behera ziboa zen eliztar denak beheko kaletarrak ziren ze hamabietan hasten den meza beraientzat soilik izaten baita. Goiko kaletarren meza nagusia hamaketan izaten da eta urtero ordutegia txandarzen dute diskriminaziorik egon ez dadin. Herria fisikoki banan-dua egoteaz gain, soziologikoki ere bi talde sozialetan erdibitua dago. Herriaren banaketa sozial hori, jakina, politikan argi eta garbi dakusate. Bi alderdi politikoek hautesleen % 90 ordezkatzen dute. Lehena BKI (Beheko Kaleko Indarra) da, botoen % 45aren jabe delarik eta bigarrena GKE (Goiko Kaleko Ekimena), botoen % 44arekin. Beste % 10 horren jabe OE (Oskortiko Ehiztariak) talde politikoa da. Hauek herritik urru-dagoen Oskorri izeneko auzo txiki bat ordezkatzen dute eta denei kontra egiteko joera dutenez, ez dute sekula koaliziorik egiten. Ondorioz, azkenean beti BKI alderdiak zuzentzen du Udala. Eta horrek goiko kaletarrak surzen ditu, baina barne gorroto hori ez dute azaleratzen.

Mezetatik irten ziren haien artean Jon Auzmendi Arteaga zihoa. Jon udaleko zinegotzia zen eta oso miretsia beheko kalean. Bere sorbalda zabalek eta ia bi

metroko garaierak errespetoa sortzen zuren. Gehienetan ohi bezala, oso dotore jantzita ziboa eta bere hile horia maixuki orrastuta. Bete masail eta kokotz ondo afeita-tuak eta soinean zuen lurin berezi hark txukuntasun kutsua ematen zion. Telebistan ageri ohi diren modeloa zirudien eta kanpoko itxura lerden horrek politikan zenbait oztopo gainditzen lagundu zion. Betiko moduan tente-tente zebilen. Urrutitik ikus zitekeen Herriko Enparantza zeharkatzen zuen bitartean. Bere pau-soak luzeak eta azkarrak ziren, presaren adierazgarri, eta aguro iritsi zen moilara. Han, kaian, ezkerrean biratu eta bere bideari jarraitu zion.

'Nik hai zorte txarra. Udara guztia Zaranzko plateroak noiz basiko eta kasualitatea... gaur hasi eta gaur osabaren meza. Hala ere gaitzerdi! Bigarren denbora jokatzeko orain-dik garaiz nabil. Kotxa bartu eta zigarroa erretzerako... zai! bondartzan. Nola joango ote dira? Moldatuko al ziren ni gabe? Ai, onena izatearen lanak! Ni gabe ez lirateke ligarako ere klasifikatuko. Joño, hor ziek-eta Iñigo. Jo behar zioat adarra'.

Han, portuaren aldameneko tabernako terrazan mutil beltzaran bat zegoen plastikozko aulkia zuri batean eseririk Euskaldunon Egunkaria eskuartean zuelarik.

—Ze, orain ere beheko kalean e! Beti gugatik gaizki esaka eta zurrutera nora? Beti honera. Inbiriak nola tiratzen duen!

—Bai, bai. Baino ni bisitan eta hi, hiltzen haizenean, han azalduko haiz goiko kalean —erantzun zion Iñigok Joni gogoraraziz hilerria Goiko Kalean zegoela —Hantxe zeukeagu gordeta hiretzeko ere terreno mutur bat. Belar eta guzti!

—Edanari horrenbeste ematen badiok aurki haiz hira saila ximauztzen. Bueno... gero hitz egingo diagu orain presa piskat zeukat-eta. Adio.

—Adio. Eta badakik ... ondo joan eta hanka hautsi!

'Sasikumea. Betti xipoka. Han ez zeukatek tabernarik eta bemandik bidali ezinik. Beben kontsumizioak ordaintzen dituzten bitartean, gaitzerdi. Ze dotorea den erosi berri dudan *Hiundai Lantraberria*. Atzetik begiratuta, perfektua. Hauek dituk faroak! A ze nolako gurpilak! Eta albotik ikusita... ederra txapa! Japoniar hauek material ona zerabiltek. Eta aurretik... Mekaguen Satanas! Egin zidatek kristona... ban duh aberia!'

Zinegotzia zurbil-zurbil geratu zen bere kotxe berriaren kristala txikituta ikusi zuenean. Parabrisako kristala

txiki-txiki eginda zuen.

*'Hau nabita egin zidatek. Eraso fasista. Hau ez, duk istripua izan, ze paratzokasak ez dik inongo markariak. Eta itsasontziak atunetan direnez, ez zebilek ez gurdi, ez sare, ez inor. Rekoña! Orain izorrail futbola! Ai! Badaespada, errepiidearen alboan dagoen tabernara juango nauk ea zerbait ikusi duen'.*

Jonek kaia zeharkatu zuen eta *Lanperna* zeritzon tabernan sartu zen. Zuzen-zuzen jo zuen tabernariaren gana. Hau justu-justu ikus zitekeen mostradorearen beste aldean. Han, pintxo eta ardo boteila merkeen artean gorderik, gizon txiki ilegorria diru kontari ari zen.

—Eguerdi on Joxelo!

—Berdin, berdin Jon! Zer habil?

—Hemen, odola txartzen. Putakume batek kotxeko kristala haursi zidak eta zerbait arrarorik ikusi edo entzun duan galdezera etorri nauk.

—Ba, ez... ze badakik... musika dela eta ez dela... eta jendea... eta... Baina horrek gaur goizko konrua izan behar dik.

—Edo akaso bart arratsekoa.

—Ez, ez... ze goizean atzo afaldu zituzten bixigu eta txitxarroen barrenak ibaira botatzera joan naizenean, hire kotxearen aldamenetik pasa nauk eta orduan oso-sorik zegoan.

—Orduan norbaitek zerbait entzun izan beharko zian, ze kristala haustein... Nik hautsiko banu, seguru, baina seguru, herri erdia esnazarazteko adinako danbatekoa sotuko nukeela.

—Hori plazako kioskoko Mariak entzungo zian. Kuskuxera hori zerraz enteratuko jarduten duk beti eta fiyo zerbait entzun edo ikusi duela. Hark ez bazekik, ez zekik inork, ze kioskoak zuzen-zuzen hire kotxeruntz begira zeukak lehiatila.

—Eskerrik asko eta gero arte.

Hori esatearekin batera, Jon tabernatik irten eta herriko enparantzarantz abiato zen. Hantxe zegoen Mariaren kiosko zuria herriko enparantzan, udaletxearen aldamenean eta kainaren frontean. Txukun eta garbi zaindu ohi zuen Mariak —zoritzarrez iaz hil zen— eta egun hartan ere beti bezain atondurik zegoen. Lehiatilara gerturatu bezain pronto, kiosko barrenetik adineko emakumea kirikatu zen. Maria zen. Adinak aurpegiko azala ximeldu arren, oso dotorea zen. Bere orrazketak

berriki ileapaindegian izan zela zerakusan, eta horrek bere edertasunean izango zuen eragin zuzenik.

—Kaixo Maria, nik badut gal...

—Esan behar dizudala eta hara orain aukera —Mariak zinegotziaren esaldia moztu zuen eta bere hitz jarioak aho bete hortz utzi zuen—, badirudi etortzeko hots egin dizudala. Hara, gaur goizean goiko kaleko GKEtar horiek zeuden moilako eskaileretan eserita, zure kotxe berriaren aldamenean... —ah, bide batez, kostako zitzaizun e? —Beno, beno... hori beste upeleko sagardoa da eta ekingo diot nereari. Hantxe zeuden txima luze kinki horiek jiji eta jajaja. Lepoa jokatuko nuke gau-pasa eginda zeudela. Txandala zuten soinean baina ez naute ni engainatuko berehala! Itxuraz plaieroetara zihoazen, baina lo gutxi eginda zebiltzan.

—Bai, horretara etorri naiz.

—Kontua da lanean jarraitu dudala horien ergelkeriei jaramotik egin gabe eta halako batean... ai ene!... ika-tagarrizko eztanda entzun det! Istripu bat izan zela uste nuen, baina ez zetorren inor errepideetik. Eta kaia guztian ez zegoen zurea ez beste autorik. Pertsonak ere inor ez. Goiko kaleko moxkor horiek, bakarrik. Badakizu, Ekimeneko-ak!

—Eta...

—Gero kotxeari begira ikusi zaitut eta zera pentsatu dut; *'Maria, danbateko horiek ez ote du zinegotziaren autoan sorlekua?'* Jakina, ondoren lotu dut guztia: GKEko terroristakume horiek, zinegotziaren autoa... Saitu naiz zuregana joaten baina, badakizu, ezin utz dezaket kioskoa inor gabe.

—Ai, banengoen ba ni. Hasieratik hartu diot tankera txarra. Banekien eraso fasista bat zela. Ezin dute onartu demokratikoki herriak hautatu gaituela eta biolentzia darabilte beren irizpideak inposatzeko. Ba, hau ez da horrela geratuko! Izango du dagokion erantzuna...

Begietatik sua zeriola aldegin zuen Jonek etxera, Maria egunkari saltzailea agurtu barik. Bizkor-bizkor, baina korrika egin gabe, etxe atarim iritsi zen. Atean giltza sartu, ireki eta barrura. Behin ezkaratzean, lehenengo solairura igo eta gero etxera.

*'Alkateari bots egingo zioat telefonoz. Aparteko plenora deituko dizkiagu alderdi guztiak eta ikusiko diagu orduan. Nola duk... 96 96 97... ti-ti, ti-ti... komunikatzen. Kaka! Kaka! Ematen zidak gogoa goiko kalera joan eta GKEko partaide guztien kotxei su ematekoaz. Baina ezin dizkiat*

*ekuak zikindu. Ez bebitzat zindegotzi naizen bitartean. Hala ere, gure gazteriak jakingo dik nola jokatu. Alderdiko gazteriaren burnu den Iñakiri deituko zioat. Hemen zegok... 96-96 95 ... tiii-tiii!*

—Kaixo Iñaki, ni nauk, Jon Auzmendi. Hi, kristona egin zidatek GKEko kabetoi horiek. Gaur goizean korxe berriaren aurreko kristala hautsi zidatek. Ez zeukat froga erabakiorrik baina korxearen inguruan ikusi zizkiaten. Haien izan dituk!

—Une honen zai aspaldi egon gara. Aspaldian jardun zaizkigu potroak ikerzen baina orain badugu aitzakia. Dozena-erdi lagun bildu, kaputxak jantzi eta gaur gauean iskanbilak sortuko ditugu goiko kalean. Ondoren Ertzaintza azalduko da eta folloia erdian autoen kristalak hautsiko dizkiegu. Gainera, bronka sortzearen erru guztia GKEren gainera joango da, je-je.

—Hori egiteko eskatzena nihoan baina ohartu naiz ez dagoela horren beharrik. A... eta ez eman inori elkarrikzeta honen berri.

—Zein zera ba? Nor da? Je-je!

—Holaxe, Alzheimer bazenu bezala. Je-je! Gero arte!

—Bai berdin, mister X.

*'Hauak hai gizonak. Holako berrehunekin garbitako genikek herria. Beno orain alkateari deitu beharko formal-formal.'*

—Ring-ring!

—Telefona? Nor ote duk?

—Bai...

—Kaixo Jon, Alkatea nauk. Guztia jikitun nauk.

—Baina, nola?

—Emazteak egunkaria erosi dik Mariarenean eta... Honi politikoki ahalik eta etekinik handiena aterar behar zaiok. Jadanik egunkari guztietara deitu diat honen berri emanaz, baita ETBra ere, eta plenorako deialdia luzatu zietat alderdi guztiei. Orain arte ez gintuztean erasotu zuzenean, beti zeharka, baina orain... demokrazia bera, bere osotasunean, erasotu durela aldarrikatuko diagu. Orain negarrarena jo eta... uztailean gehiengo absolutoa! Ah, ez azaldu plenora. Entzun: agindu politikoa duk! Hi odol beroko haiz eta ez duk balio gizajo jipoituaren papera egiteko. Han hasiko haiz mekauenka eta dena hankaz gora botako duk. Plenoa eta gero manifestazioa izango duk eta enkargatu nauk telebista ekartzen.

—Azkar egin duzu dena Alkate jauna.

—Holako aukera politikoak gutxitan izaten dituk. Erre ibili beharra zegok eta arin jokatu GKEko hauzesle moderatuak eskuratzeko, GKEren aurpegirik erradikalea agertu da eta matrileko eman gabe ezingo dut lo lasai egin.

—Eta Oskorrikoek zer diote?

—Erasoa gogor salatu behar dela ziotek, bertako pake giroa ez dadin pikutara joan. Hori lehendakariak esan zidak, baina bilera egin arte ez omen ditek idazkirkirik plazaratuko. Hik onena lo egiteko pastila indartsu bat hartu eta bihar arte.

—Berri-berria duk kotxea eta... Badakik nola zaintzen ditudan kotxeak, nola mimatzen ditudan eta orain errepuetako pieza bat jarri behar. Eta pieza Japonetik bidali behar dute eta auskalo zenbait kostzen zaidan.

—Hi lasai, plenoan proposatuko diat kalteak Udalak ordaintzea eta kitto! Orain lotara joan hadi, ea baretzen haizen, eta bihar hator Udaletxera goizean-goiz. Itxaron piskat! Hik beduk kotxearen asegurua, ezta?

—Bai.

—Ba, hobea diagu asegurua etxeari parte ematea. Horrela ez ditek zerritik horiek txintik ere aterako eta hurrena beste nonbaitetik aterako diagu ezkutuan hire kalteordaina ordaintzeko adina diru.

—Konforme.

—Autosegur etxean egina daukak, nere ilobak egin zian, eta nerori enkargatuko nauk honetaz ere. Ohera joan hadi. Biher arte!

—Ados, Alkate jauna. Agur!

*'Ze petrala den. Agindua han eta hemen eta dena kontrolatu nabi. Hori gaitza da gero! Hala ere, antolatzale bikaina duk. Eskerrak ez dakiela gaur gauerako antolatua dudan festa. Ganzak ondo egiten badizkitek ez duk ondorio txarrik geratuko. Nik orzin onena ohera joatea, lasai garri sendondo bat hartz eta biher arte'.*

Jonek telefonoa eskegi, maindireak alboratu, ohean sartu, maindireak berriz bere tokian jarri, pastilla irentsi, ura edan eta argia itzali zuen. Bost minitu igarotzeta, lo zerraldo zegoen.

Arratsalde eta gau hartan, gertaera ugari eman ziren herrian. Arratsaldeko sei etan Udaletxean plenoa burutu zen eta bertan, BKI eta OE alderdien aldeko botoen bidez, komunikatu bat kaleratzea onartu zen. Bertan

indarkeriaren erabilera gaitzesten zen eta gizarteari pakean bizitzeko ahalegina egitea eskatzen zitzaion. Aldiz GKE abstenitu egin zen oraindik argitu gabeko istripua interes politikoengatik manipulatua izan zela argudiatuz. GKEko bozeramaileak bere alderdiaren aurkako beste eraso baten itxura guztia hartzen ziola esan zuen COPE irratian eta aldiz Alkateak GKE salatu zuen publikoki Euskadi Irratian, ezkutuko erruduntzat. Plenoaren ondoren manifestazioa izan zen eta ETBk bere Gaur Gabon saioan zuzenean bota zuen. Bertan 'GKE terrorista' esaldia oihukatu zuten 'Gaur Jon, bibar nor?' kartelaren atzetik zihoazen pertsonek. Bestalde, gauean, ertzaina eta gazte talde batzuen artean botrokaldiak gertatu ziren goiko kalean eta, ondorioz, hainbat autoren kristalak apurturik agertu ziren hurrengo goizean.

—Ring... Ring

“Telefona. Ai!”

Hasperen luze batez esnatu zen Jon hogei orduko loaldiaren ostean. Ohe gainetik eskua luzatu eta telefo-

noa hartu zuen.

—Bai?

—Egunon! Autosegur asegurueta peritoa naiz. Hor bizi al da Jon Auzmendi?

—Bai, ni naiz.

—Beno, ongi da. Alkateak eman zigun istripuaren berri eta gaur goizean egin dut bisita udaltzainarekin batera, eta, azterketa sakon baten ondoren, esan behar dizut gure enpresa ez dela koxxe barruan gertatzen diren ezbeharren kargu egiten.

—Koxxe barruan?

—Bai. Inpaktoa barruan eman zen. Bolantearen aldamean metxero edo txiskero merke horietako bat zeinuen eta arzoko eguraldiaren eta beiraren eraginez koxxe barruko temperatura asko igo zen. Eta eguerdia iristean, ba..., danbal metxeroa hautsi eta kristalak ...porrot! Egun ona izan dezazula jauna.

—Ostras!

## Riad Alazne Goenaga

Gau ilunaren magalean lokaturik dirau herriskak, laurgei bat lastozko etxola, elkarrengandik ez oso urrun. Harantzago so eginez, lurrean dauden itzal beltz haundi barruk soma daitezke, animaliak akaso...

Gauak, ordea, aldegiteko garaia du, etxoletan marmarrak entzuten dira. Badirudi herriska lozorrotik irten dela eta arestian izandako bake armoniatsua haustear dago. Marmarra gero eta ugariagoa da, baina ezezaguna, hizkeran ari den jendea dagoela antzeman daiteke baina ezezaguna da. Bitartean herrixkaren inguruan dauden mendi garaien artekik zerbait datorrela suma daiteke, azken iluntasun tantak irentsiko dituen zerbait... edo norbait...

Marmarra isilduz doa eta horrekin batera lehen gizakia irten da txabola batetik. Zaharra da, arras astiro dabil eta bastoi moduko makila okertu baten gainean darama bere eskuin eskua. Beste biztanle guziak ere atera dira eta bere atzetik doaz, denak isiltasunean baina alai, aurpegieta alaitasuna nabari zaie. Taldearen buru doan zaharra leku jakin batean geratu da, antza, eta beste guziek ere ibiltzeari utzi diote. Atzera so eginez, lehen gauaren beltrasunean zegoen itzal multzo hura ez dago jadanik: animalia batzuk daude. Ile luze eta ubela dute, garaia eta sendoak dira, begi beltz haundikoak eta leordea darie murur luzeetarik. Apatx sendoez lurra jotzen ari dira, badirudi gosez daudela, baina... inork ez

die jaramonik egiten.

Agure zaharra oihuak hasi da ulegaitza zaigun hizkunta batean, makila okertua altza eta mendietara begira jarri da:

—Zatoz, zatoz egunero bezala, zure zain gaude! —oihuakarzen du.

Hitz horiek esan eta gero, berrehun bat inguru izango diren izaki guztiak belaunikatu dira eta horrekintz batera eguzkia irten da bere osotasunean, eskualde guzia argituz. Riad-en izpiek agurearen aurpegia, zein zimurrak errekastrak bailiren zeharkatzen dute, ferekatzen dute. Atzean duen jendeak ere aurpegia erakutsi dio Riadi eta hauek ere lastan goxo eta epela jaso dute.

Denetarik dago: emakume gazteak, gizon zaharrak, haurrak, besoetan haur jaio berriak dituzten emakumeak, zaharrak eta abar. Denek dute, ordea, adats beltza, denek, zutik dagoen agureak izan ezik, honek urdindua baitu. Azala ere beltzarana dute, begi urdinak eta ezpain meheak. Sudurra zabal xamarra dute eta behari ertzean, berriz, marra beltz bat. Jantziak ilunak dituzte: tunika moduko bat eta gainean trapu pila bat. Lepotik harri dizdiratsuak dauzkate zintzilik, oinetan, ordea, ez dute ezer, oinutsik daude.

Han dagoen isiltasuna atzean dauden animalitzar haien orruak uxatu dute. Orru horiek eguneroko lanei ekin behar zaiela adierazten dute. Denak lurretik jaiki dira eta Riaden aurrean erreberentzia moduko bat egin ondoren bakoitzera bere zereginetara abiaturi da. Gazteenak, ordea, agurearen inguruan geratu dira. Ilean ikaragarrizko anabasa duen mutiko batek harri haundi bat ekartu du eta agureari esertzen lagundu dio. Poliki mugitzen da agurea adinaren zamaren eraginez.

Agurea, bere makilarekin zerbait izkiriaturi hasi da. Ez, zerbait marratztu du. Bai, borobil bat egin du, inguruan izpi moduko batzuk dituela.

—Nor da? Riad?

—Bai gazte, gure jainkoa Riad da.

—Baina zergatik da Riad gure jainkoa Yoël zaharra? —apur bat aztoraturik.

—Lasai gazte... azalduko dizuet eta.

Eta agurea bere ezpain zaharkitu eta meheak ia mugitu gabe hizketan hasi da:

—Ba, oso aspaldi...

Herriskan betiko laneran dihardute. Agurea kontatze-

ra doan guztia soberan ere ondotxo dakitela dirudi.

—...oroimena izeneko dama azkarra ere iristen ez den denbora batean, Riad-en etxean, unibertsoan, beste planeta bat bizi zen. Riadek, orain guri egunero argia eta berotasuna ematen digun bezala, beste batzuei ematen zien. Toki hark Lurra zuen izena, gurea bezalakoa zen baina askoz ere haundiagoa, hora ikaragarria zen, han guk zenbatu ezin dezakegun izaki kopurua bizi zen, bost lur zatiz osatua zegoen eta inguruan ur gazi pila bat zuten itsasoa deitzen ziotena. Lur zati bakoitzean arraza ezberdinako jendea bizi zen.

Lurra sortu zenean oso ederra omen zen, Rahoga bezalakoa. Hasieran gizaki gutxi batzuk ziren, gure antzera lastozko etxoletan. Bainak gizakia gero eta aurrerago joaten hasi zen. Etxeak harri astunez egiten hasi zen, eta leku batetik bestera joateko galtzadak egin zituzten zelai berdeen gainean.

Herri bakoitzak jainko ezberdinak zituen eta haien menpe zeuden. Patua euren eskuetan uzten zuten. Hottrenbeste herri ezberdin zeuden ezen beraien artean adostasunik ez zegoen eta ondorioz borrokan hasten ziren. Guduak sortu zituzten eta jende errugabe asko hil.

Gizakia jainkoetaz aspertu zenean, baztertuta utzi zituen eta gauzen zergaria aztertzen hasi zen. Jakinmin horren aurrean, ikasteari ekin zioten. Dirua izeneko gauza batekin ama natura erosten zuten eta pertsonenkin ere berdin egiten zuten.

Beraz, gizakiak gero eta gehiago pentsatzen zuen eta gero eta gauza gehiago asmatzen zituen bere hobebarrerako eta amaren kalterako. Izan ere, jenderiza izugarria bizi zen eta baso eta mendiak suntsitzen ari ziren etengabe mendeetan zehar. Garraiorako ere izugarrizko makinek eratu zituzten: animaliak erabili beharrean, kezikina botatzen zuten munstroak asmatu zituzten. Zuhaitzak bota zituzten, egurretik papera izeneko orri zuri batzuk ateratzeko eta, gero, bertan izkiriari ahal izateko. Eta horrela etengabeko zirkulua osatu arte.

Iritsi zen une bar... dena makinek egiten zutena: dendena egiten zuten. Munstroek guzia kutsatu zuten, ia ez zen zelai berderik ikusten eta urak ez ziren gardenak, arrainik ere ez zegoen bertan. Bainak ez zuen axolarik, arrainak makinek egingo zituzten. Izakiak ez zuen deus ere egiten, makinak asmatu eta haien zaindu besterik ez. Izakiak makaldu egin zen, ez zuen lanerako gogorik eta

zehato alertura bizi zen. Haurrik ere ez zuten Lurrera ekartzen eta gizartea zahartzen ari zen. Lurra guk pentsa ezin dezakegun egoera batean aurkitzen zen.

Riad ordea han zegoen. Sua zerion eta ezin zuen sinestu begien aurrean zuena. Ezin zezakeen onartu bere etxearen horrelako hondakin multzo erraldoia. Denbora luzean egon zen gogarte sakonean eta, azkenik, Lurra deuseztean ebatzi zuen.

Egun beroa izan zen hora, beroegia, izan ere Riad larregi gertutu zen Lurrarengana eta bertan zegoen guztia kiskali zuen. Bi gauza izan ezik. Bi izaki izan ezik: elkarrengandik oso urrutibizi ziren bi izaki, elkar ezagutzen ez zuten bi pertsona utzituztuen bizirik. Nodu gizaseme beltz eta gaztea zen, mutil osasuntsua. Lear berri emakume zuri eta ederra. Han geratu giren biak, bakoitza bere lurraren aldean, kiskalitako lurren artean. Izuturik zeuden, ez zegoen inor, ez ezer, bizirik. Berak ziren lurzoru guzian bizia zuten bakarrak.

Riaden asmoak zentzuzkoak ziren, ordea. Bi izpi luze

eta gozoez Lear eta Nodu hartu zituen eta hona ekarri, Rahogara. Riadek biei hitzegin zien:

—Zuek biok hondamenditik enpanatuak izan zarete, orain hemen Rahogan bizitzaren kimu berria eralduko duzue.

Eta Riad aldendu egin zen, hurrengo goizean ortze amaiagabeen ostera irteteko. Bai... Lear eta Nodu izan ziren gure aintzindari, beraien sortu zuten gure arraza, biak Riadi esker.

Yoel zaharrak Riaden marraskia hatz luze eta okertuez ezaharri du lurretik. Gazteak bitartean ahozabalik daude. Bat, ordea, altza eta agureari laguntzera doa. Badaoz... agurea bere makila okerrari eutsita astiro-astiro. Gazteak, berri, atzetik.

Gizon barek beste bat, laster etxolak harriz egin ditzaketela esan dio, goiko harrobian ba omen dago eta nahiko harri. Yoel zaharraren beharrira iritsi da kontua. Burua mugitu du. Bere aurpegian kezka ikurrak nabari daitezke.

# Denbora

Xabier Sukia

1

Batzuentzako garratza zara  
besteentzako leuna,  
batzuentzako arina zara  
besteentzako astuna,  
zure neurrija joaten dira  
berdin gaua ta eguna,  
ihesi doan hutsuna,  
ikutu ezin duguna,  
ez dakit ziur zer ote zaren  
etsaia edo laguna,  
behinola sortu gintuena ta  
akabatuko gaituna.

2

Gaur gerokoa gertu dakusat  
eta bihar gertuago,  
bihar lehengoa urrutiberti  
eta etzi urrunago,  
lehena, oraina eta geroa  
hirurak zeure esklabo,  
igaro eta igaro,  
gelditu gabe luzaro,  
esan izan da oiloa edo  
arrautza, zein da lehenago?  
batak ezin du bestea egin  
denborarik ez badago.

Gaur lasai-lasai iragan arren  
bihar sor litzke saltsak,  
edo ekaitza gaur sor liteke  
bihar jolas eta dantzak,  
ezin asmatu zer dakarkigun  
erlojuaren orratzak,  
gaur agian esperantzak,  
bihar momentu garratzak,  
beti gogoan iraganeko  
une xamur eta latzak,  
ahaztezinak izaten dira  
zuk utzitako urratsak.

Zureganako jakinmin hori  
areagotu zait neri,  
nondik zatozen eta non zauden  
ez dakusat garbiegi,  
ez dakit noti galdetu eta  
ez dakit zer pista segi,  
ez beso, hanka ez begi,  
ez gorputz ta ez aurpegi,  
ikustezina, ikutezina,  
ez zara inon ageri,  
aldi batean ez zara ezer,  
aldi berean gehiegia.

Sarritan sortzen diguzun mina  
ezin barruan ezkuta,  
orain amortuz, ondoren pozez  
garabiltzazu nahastruta,  
derrigorrean jarraitu behar  
markatzen duzun erruta,  
garaitu duzu burruka,  
zure beharra dugu-ka,  
baina zuk ere behar gaituzu,  
hori ez zazula uka,  
agintari bat ez baita ezer  
menpekorik ez badauka.

Hala ta guztiz ikusten zaistut  
gero eta larriago,  
ordu ezerberdinak jartzet dituzu  
sarri baino sarriago,  
Kanarietara iristen zara  
ordubete atzerago,  
iritsi ezinda, akabo!  
nekatu zara zeharo,  
inoiz ez zazu pensa zarenik  
zarena baino gehiago,  
ordu berean leku denetan  
Jainkoa bakarrik dago.

# *Sega zaharra*

Xabier Sukia

1

Bi atzparren morroia  
 -segatuz azpi ta goia  
 joan zen neure sasoia,  
 orain daukadan nagusi honek  
 gehiegiz maite du ohia,  
 hemen zikina, han lohia,  
 bueltan kolore marroia,  
 nagusitu zait herdoia.

4

Joxe nuanean jabe  
 hartzen ninduen xuabe,  
 lan gogorra izanda're,  
 aita joan ta sermea dago  
 zorri alper batet pare,  
 sentitzen naiz oso grabe,  
 sega onak alperrik gaude  
 segalari onik gabe.

2

Semeak ez du arretik,  
 narama bide txarretik,  
 ez nau ibiltzen larretik,  
 bere aita zenak, Joxek maitatzen  
 nindun bihotz-bihotzetik,  
 utzikeria hutsetik,  
 izorratu naiz kolpetik  
 Joxe hil zitzaidanetik

5

Geldik egotea nahio  
 siesta egitera io,  
 alperrik da, zer arraio!  
 aitaren antzik ez dauka behintzat,  
 garbi antzematen zaio,  
 egin zuen hainbat saio,  
 beti zerbaiten karraio,  
 ta-hau nekatuta jaio!

3

Joxek bazuen hainbar lur,  
 gorputza jarriaz makur  
 berdin eguzki ta elur,  
 tikitirraka ebaki zuen  
 horrenbeste zelai-mutur,  
 tenie zegoena, agur!  
 belar, sasi eta egur,  
 denak ziren nere beldur.

6

Ezartzen dudan baldintza,  
 trasteak erabil bitza  
 edo akabo bizitza  
 sardeak faltan botatzen diru  
 belar goxo eta helmitza,  
 ikuilua dago hitsa,  
 baratza oso murritza,  
 danak berdintsu gabiltza.

Herriko neska lerdenak  
txoraturik dauzka denak,  
rubiak eta morenak,  
txarra behar du nagusi honen  
ezkontzaren ondorenak,  
pasa behar dituenak,  
atsekabe eta penak,  
honekin ezkontzen denak.

Etxe ondoko baztarrak  
ia-ia jan ditu larrak,  
baditu nere beharrak,  
honen semeak baldin badira  
aita den bezain baldarrak,  
akabo baserri zaharrak,  
akabo nere indarrak,  
eta akabo belarrak.

Baietza esan elizan  
ta emaztearen gerizan,  
sukaldean komeni zan,  
ez dut egon nahi ezkontza horren  
ondorengoen peskizan,  
beti egin duen gisan  
bazterrak galdu ez ditzan  
haurrik ez dezala izan.

Aspertu gara txokoan  
pipi zaharren mokoan,  
beti daukagu kolkoan,  
pozik ez baina itxaropentsu  
sentitzen gara gaurkoan,  
gaur ez bada biharkoan,  
norbait berehalakoan  
etorriko delakoan.

# *Ni gixaixo*

*Ibai Esoain*

Zu ikustean oroitzen nintzen  
larrosaren usainenan  
zuri halaxe agertu nahi ta  
hala esan ezinean,  
barrara buelta egin genuen  
gaua ixten zen heinean,  
itsas-uhinek lantzten zuten  
arroka baten gainean  
lehengo aldiz orduan bertan  
jaso zintudan soinean.

Gogoan daukar udaberriko  
mendi-irteera harena,  
haritz zahar baten itzalpearen  
bezero egin ginena,  
margaritaren bai-ezezkora  
jolastu ginene aurrena,  
nik eskatuta musu handi bat  
eman zenidan hurrena,  
txori guziak ere inbiriz  
mutu utzi zituena.

Hirurogeita bederatziko  
abuztuaren zazpian  
zu gorde zinen sedazkoa zen  
soineko txuri azpian,  
hura bihotza lehertu beharra  
eraztunak ematian,  
arrozen lagun egin gintuzten  
elizako atarian,  
bi txori txiki bildu baikinen  
enbor bereko kabian.

Kanarias zen gure ametson  
ispiluaren islada,  
eztei bidaia egin genuen  
zorioneko irlara,  
geneukanaren poztasuna ta  
zatorrenaren ikara,  
zu zinen nere bihotz alata  
babesten zuen izara,  
orain malkoak xukatzen ditun  
musuzapi hutsa zara.

Ikastolara laguntzen nuen  
murilkoxkortu aurretik,  
negarrez urzi, negarrez jaso  
ez zen bestelako bueltik,  
zu ama zaren aldetik eta  
ni aita naizen aldetik  
hezi genuen bizimoduak  
eskatzen zuen bidetik,  
guraso txarrak dituenikan  
ez du esango gugatik.

Bisitatu det lehen urratsen  
testigu nuen artoka,  
lehengo uhinen jolaskidea  
orain elkarri mokoka,  
ezkonberrian eskainitako  
erautzunari malkoka,  
seme Txominen argazkitxoa  
karreratxoan itota,  
galdutakoa eskuratzeko  
itxaropentsu nago ta.

Ezkondu eta urtebetera  
ekarri genuen Txomin,  
trainera bezain ile horia  
bi begi urdin-urdin,  
gogoan ditut loarazteko  
zenbat saio ta ahalegin,  
zuk paketea aldatu eta  
nik bertsoak kantatu fin,  
maitasun faltan ume txikia  
negarrez ito ez zedin.

Alde haundia egon liteke  
haserretik haserrera,  
ahaztutzetikan eskatzeraino  
dibortzioko papera,  
etxerik gabe, ametsik gabe  
semerek gabe, gainera,  
gizona nola alda liteke  
egun batetik bestera,  
nahi duen dena izatetikan  
ezertxo ez izatera.

# Orioko Udaleko Euskara Batzordearen laguntzari esker argitaratu da gehigarri hau

nala. Adibidez, pertsona hori ohean gelditzen bada edo bakarrik ordu asko egin behar baditu, ca...

Programa honen barruan dazkagu Aiaiak kampo egoitzetan dazkagun zazpi pertsona.

Bestalde, bidaude beste pertsona batzuk kanpoko egoitzetara joan nahi ez dutenak. Hauek herrian mantentzen saiatzen gara, eta honen adibide garbia da Hospitaltexe. Hospitaltexe bat bestutako etxebizitza bezala funtzionatzen du. Momentu honetan, bi pertsona bizi dira. Etxez etxeko laguntza jasotzen dute eta nahiko autonomo mantentzen dira.

**K.: Arazoren bat daukan pertsona hori, zuzenean etortzen da edo beste iturri batzuetatik jakiten duzue arazoaren berri?**

**L. A.:** Batzueta pertsonalki etortzen dira, eta beste batzoetan, zeharka esango genuke, adibidez maisuaren bitarte, medikuaren bitarte... Aian ez dago mota honetako laguntza eskatzeko ohitura. Arazoa guztiz larria egiten den arte, familiaek ez du laguntzarik eskatzen. Baserri askotan hiru eta lau generazio bizi dira eta asko laguntzen diote elkarri. Hasieran kanpoko laguntza eramanezina egiten zaie, baina gauzak hobeto doazela ikustean, onartu egiten dute.

**K.: Zenbat pertsonak egitzen dute lan etxez etxeko zerbitzuan?**

**L. A.:** Gaur egun, lau ari-ten dira. Baina beharraren araberako laguntza ematen da. Ez zaio guzti eginda ematen, baina minimo batzuk lortzen saiatzen gara.

Momentu honetan zazpi

## 'Arazoa larria ez den arte ez dute laguntza eskatzen'

familiaedo kasu ditugu, guztia arazo desberdinak. Auzoz auzo eta baserriz baserri dagoen distantzia haundi denez, lanerako pertsona gehiago hartu beharrengau de askotan. Zerbitzu honek kostu bat danka eta familiaak ahal duen neurriak kostu hori ordaintzen saiatu behar du. Familiaren egoera ekonomikoaren arabera tasa batzuk jurtzen dira, eta familia bakoitzak berari dagokiona ordaindu behar izaten du.

**K.: Aurrera begira zerbitzu gehiago martxan jaritzeko asmorik ba al dago?**

**L. A.:** Asmoa bai, baina askotan oso zaila egiten zai- gu. Oziopo haundiak ditugu Aia bezalako herri batean zerbitzu berriak martxan jaritzeko. Komuan izan behar

da, alde batetik herria txikia dela, eta bestetik dispersio haundia duela. Jende gehiena baserrietan bizi da, eta askotan zaila egiten zaio kalerainto etortzea. Hiri edo herri haundiago batean adibidez, etxez etxeko laguntzarik gabe gelditzen direnentzat, egunero zentru bat martxan jartzea plantea daitzeke. Hau Aian ezinezkou da, ez genuke sekula horrelakorik lortuko. Urniti bizi direnentzat Aiara etortzea zaila da. Horregatik, posible balitz, egokienea inguroko herrietako zentruetara joateko aukera izatea izango litzateke.

Martxan jarri berria den beste zerbitzu bat, "Tele-Alarma"rena izan da. Laguntza teknikoa da, aparatu

batzen bidez, SOS Deiak-eko zentralita batekin konektatua dago etxean dagoen pertsona hori. Interfono baten bidez komunikazio zuzena dago, telefono zenbakirik markatu gabe. Hau oso garrantzitsua da, pertsona askok zailtasunak baitituzte telefono zenbakiek markatzeko. Ez beharren bat gertatu ezkerro, momentu horretan urgentziatan daudenekin kontaktuan jartzan zara. Momentu honeitan bi kasu dazkagu Aian zerbitzu honekin.

Aurrera begira denbora librerako lokal bat irekitzeko asmoa dago. Bertan, Aiako aiton-amonek elkartzeko eta denbora pasa egoteko aukera izango luke.

Arazo guzti hauen aurrean Udalaren jarrera ona da. Zerbitzu hauek hobetzeko aukera badago, eta gure nahia horixe da. Orain arte ere, aurrera jo dugu, eta berdin jarratzeko asmoa dago. Beti ez da asmatuko agian, baina saiatzen gara arazo guztiak konponbideren bat aurkitzen.

*Udalak laguntza ematen die behar duten edadetueti*





## Ihauteriak ospatuko dira herriko eskolan eta herrian zehar

Otsailaren 16an, ostirala, eta urtero bezala, eskolako haur eta irakasleak mozorrotuta agertuko zaizkigu aurtengo ihauteriak ospatzeko.

Herrian zehar kalejira egin ondoren, beti ere eguraldiak laguntzen badu, plazan elkartuko dira jendeari musika eta antzerki saio umoretsuak eskaintzeko asmoz.

Pasa den urtean ateratako argazkian "Oeste"ko pertsonaiak agertzen badira ere, bestelakoak ikusi ahal izango ditugu. Besteak beste, indioak, printzesak, txinitoak...

Beraz, bazkalondoan eta kafearekin batera, aukera paregabea izango dugu une dibertigarria pasatzeko herriko eskolako haur, irakasle eta jakina, espontaneoekin.

### Ibilaldi gidatua Aian

Otsailaren 17an, Aiako Arreta Taldeak antolatutako ibilaldia goizeko bederatzi t'erdietan hasiko da Errospideko aparkalekutik. Ibilbidean parte hartzen dutenak toki hauetatik pasako dira: Errospide, Artetxota, Amezketalardi, Lizarrako lepoa eta Elutsaundi. Ibilbidea arraisaldeko ordubata t'erdia aldera bukatuko da.

### Erromeria Aristerrazun otsailean

Aristerrazu auzoan otsaileko igande guztietan erromeria izango da arratsaldeko 7tatik aurrera. Hauek dira arituko diren trikitilarriak: otsailak 4ean, Isidro eta Sergio; 11n, Arrasateko trikitixa eskolako taldea, eta ondoren Maixa, Itziar eta Garbiñe; 18an, Etxabe anaia; eta 25ean, Billabonako trikitixa eskolako taldea, eta ondoren, 'Etzakit' taldea.

### Kolaboratzaile bila

Aiako KARKARAKO eredakzio-taldean parte hartu nahi baduzu, Kultur etxera etorrri besterik ez duzu. Gustora hartuko zaiztugu.

## TXUKUN

Lorazantza

Basoetako esplotazioa eta lorralana

Telfnoa: 13 07 69/908-17 93 16

## PORTU ERRETEGI

✓ Despedidak  
✓ Bataioak ✓ Jaunartzeak  
Santio erreka auzoa  
☎ 83 57 38

## Antton Sarobe

Kamioi zerbitzua,  
ganadu eta abarretarako



Telefnoa: 83 48 59



# Hezkuntzaren antolamendu berria

*Seme-alaben heziketak buru-hauste franko sortu ohi die gurasoei eta eskola aukeratzearena ez da txikienetakoia izaten: non izena eman, gure umeei zer komeni zaien, zer eskeintzen diguten batzuek eta besteek, zer izango den egokiena... zalantza asko sortzen zaizkie guraso kezkatuei. Aurten, gainera, oraindik ere zailago izango da, sistema berria indarrean jarriko baita irailetik aurrera.*

*Eskola-mapa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lehen Hezkuntza... hitz potolo hauetan behin eta herriro egingo zenuten topo, eta, egia esan, ez da lan makala zer esan nahi duten ulertzea. Argibide batzuk eskaintzen sariatuko gara, gai horien inguruan.*

● KARKARA ●

## Orain arteko antolamendua

Ondoko orrian doan koadroan elkarren ondoan jarri ditugu gaurko Hezkuntz Sistema eta irailetik aurrera indarrean sartuko dena. Bien artean erregelatxo bat jardugu, ikasleen adina azaltzen duena.

Hurren eskola-ibilbidea 2 urterekin hasten da gaur egun eta, 6 urte bete arte, Eskolaurrea egiten dute

umeek, 14 bitartean Oinarriko Heziketa Orokorra (OHO/EGB) egitendute eta, hortik aurrera, bi aukera dituzte: Batxilergo Balioanitz Bateratua (BBB/BUP) edo Irakaskuntza Ertuinetako Erreforma (IEE/REM) egitea. Unibertsitatera joan nahi dutenek BBB aukeratzen dute, eta besteek IEE, bide horrek aukera ematen due-lako Lanbide Heziketako ikasketan jarraitzeko eta, nahi izanez gero, Unibertsitatera joateko besteak bezala, baina erabakia bi urte beranduago hartuz.



## Derrigorrezko heziketa luzeagoa

Oraino antolamenduan 6 eta 14 urte bitarteko ikasiek dira derrigorrezkoak. Erreparatu orain koadroaren eskubiko aldeari. Sistema

berrian, derrigorrezko heziketa bi urte luzatzen da; haur guztiak 16 urte bete arte ikasi beharko dute hemendik aurrera. Hori da sistema berriaren gauzarik garrantzisuenetan. Horren helburua honako hau da: ikastegutegi heziketa sakonagoa eta prestaketa hobea eskaini-

tzea. Bestalde, Europako antolamenduarekin bat dator horrela eta, baita ere, lege araudiarekin. Adibidez: gaur 14 urterekin OHO bukatzen duen ikasleak ezin du lanean hasi, 16 urte betetutako arte ezin baita lan-kontraturik firmitu. Oso importantea den beste arrazoa ere hor dago:

bi urtez atzeratzen da Batxilergoak egitea erabakitzeko momentua. Horrek esan nahi du ikaslea helduagoa izango dela bide horren aukera egiterakoan, eta, printzipioz behintzat, erabaki egokiagoa hartuko duela.

## Antolamendu berria

Beraz, irailetik aurrera, horrela antolatuko da haurren eskolatze-prozesua: Haur Hezkuntza 2 urtetik 6 bitartera, Lehen Hezkuntza 6tik 12ra, 12tik 16 bete arte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH/ESO) egingo dute. DBHko ikasiek tak egiteko honako aukerak izango dituzte haurrek: Institutura joan edo sortuko diren DBHko zentru berriatarrako jo. 16 urte egindakoan bi aukera izango dituzte: Batxilergoak egin (lau aukera izango dituzte: zientzietakoa, humanistikoa, teknikoa eta artistikoa) edo Lanbide Heziketara jo.

## Zer da eskola-mapak?

Eskola-mapak finkatzen du zein ikastetxek zer emango duen antolamendu berri horretan. Hau idazteko momentuan, Hezkuntza Saila azken ikuituak ematen ari zaio eskola-mapari. Berak jarritako irizpideak hartzen dira kontutan, orokorrean, nahiz eta tokian tokiko egokitzeak onartu.

# ZUMINTZA

- Ileapaindegia - Estetika
- Depilazioa - Sauna

Tfnoa: 83 17 56

# GURE TXOKO

## TABERNIA

ARITZAGA KALEA

# BORDATXO

- Bokadilloak
- Marisko rasio bereziak

13 30 14

## Eta Orion zer?

Hezkuntza Sailak honako baldintza jartzen du, besteak beste, DBHko zentrua eratzeko: ikasmaila bakoitzean bi gela izatea, bakoitzean, gutxienez, 25-30 ikasle direlarik. Haur-kopuruari dago kionez, ez Herri Ikastolak eta ez Zaragueta Eskola Piblicoak ez dute betetzen gutxieneko hori. Biek elkar hartuta, berriz, hortxe-hortxe.

Bukatzeko, ikasleentzako argibidetxoa: 8. maila egiten ari zarenenek sistema zaharra jarraituko duzue eta BBB edo II Eren artean aukeratu beharko duzue. 6 eta 7. mailakoak DBHko lehenengo ziklora pasatzen zarete zuzenean: 6. mailakoak 1. kurtsora eta 7. mailakoak 2. era.



## Orain arteko prozesua

Pasa den urteko kurtso bukaera aldera elkarritzetan hasi ziren Herri Ikastola eta Zaragueta Eskola, Udalaren bitartekaritzarekin. Horren fruitu izan zen "akordio bilera" izeneko dokumentu bat, Ikastolako zuzendariak idatzia. Agiri hartan, Orioko Bigarren Hezkuntza elkarrekin antolatzeko posibilitatea planteatzen zen.

Geroztik, ordea, ez zen aurrapausorik eman eta, gainera, hainbat arrazoi medio, bi eskolen arteko giroak be-

rriz ere txartzera jo zuen.

Gauzak horrela, eta erabakiren bat hartzeko epea bukatzen ari zela ikusita, pleno bat egin zen abenduaren 29an gaiaz hitz egiteko. Pleno hartan Zaraguetak erabilizten ez zituen gelak Delegazioari eskatzea erabaki zen. Pleno-erabaki harten esaten zen, baita ere, helburua bi eskolen munizipalizazioa zela, Bigarren Hezkuntzari dagokionean. Delegazioak ezezko erantzuna emanez gero, urtarilaren 22rako eozohizko plenoa egiteko konpromezua ere hartu zuten zinegotziek.

Urtarilaren 22ko plenoan, aldez aurretik alderdi politiko guztiak (PSE-EE

izan ezik) hitzartuta zuten mozia onartu zen.

Hau da EAJ, HB eta EAren akordioa, plenoak onartu zuena:

*Ia—Orioko herriaren interesentzat erabaki arrazionalena honako hau da: Juan Zaragueta ikastetzean hutsik dauden gelak erabiltzea. Orioko umeek DBH osoa herrian egin dezaten.*

*Ib—Delegazioak ez badu erabaki arrazionalena hartzan, Udalak ez du nahi Delegazioak gela eta instalazio falta aitzaki gisa hartzea. Ikastolak DBH emateko baimena eta kontzertuak ez eskuratzeko. Horregatik, Ikastolaren bigarren alternatiba bultzatzeko konpromezua*

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI  
BADUZU EROS EZAZU...

**Kepa Loidi**  
harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65



San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70

hartzen du, hau da: Katedra edifizioa erabiltzeko eta bertan obrak egiteko baimena ematea. Udalak adieraziko du, hala ere, noiz hasi behar duten obra horiek, zeren eta Udalarentzat lehentasuna duena lehen alternatiba baita: Zaragueta hutsik dauden gelak erabiltzea. Udalak konpromezua hartzen du indarrak bildu eta inplikaturako parte guztiak artean akordiotara iristen saiatzen.

*Ic—Udalak bat egiten du munizipalizazioari buruz Ikastolak hartutako konpromezuarekin: "Udal Eskola legalki gauzatzen denean, Ikastolak konpromezua hartzen du hile hori aztertzeko eta Guraso Elkarteari aurkezteko".*

*2—Udal plenoak honakoa eskatzen die Udaleko zerbitzu juridikoa: Katedra edifizioari buruzko txosten juri-diko-erregistrala egitea. Zesioren baldintzak aparte erabakiko dira.*

Hezkuntza Sailak prestututako eskola-mapak ez du Orion DBHko zentrurik aurrikusten. Gauzak horrela geratuko balira, Orioko hurrek, 12 urte beteta, herritik kanpo joan beharko lukete DBH egitera.

Ez da oraindik gauza segurua nola geratuko den Orioko DBHaren kontua, baina laister hastekoak dira elkarritzak Hezkuntzako Delegazioarekin, eta horren emaitzen zai egon beharko dugu.

# Joseba Agirre

*gauero amets txuri-urdinak egiten dituen mutila*

Oraindik jubenil mailan beste urte bete geratzen zaien arren, Errealeko bigarren taldean titular moduan jokatzen du. Talde txuri-urdinera hamabi urterekin iritsi zen eta hemezortzirekin azken urratsaren atarian dago, urratsik zailena eta garrantzitsuena. Errealera iristen bada, denon poztasun iturri bihurtuko da eta bestela, agian, egia bihurtu zitekeen ametsaren morroa.

IAKES GOIKOETXEA

**KARKARA:** Aiarra ala oriotarra?

**JOSEBA AGIRRE:** Santio Aian dago eta berez aiarra izan arren, beti oriotarra kontsideratu naiz. Ikasketak, futbola, ... beti Orion egin ditut.

Egunkarietan oriotarra naizela jarri izan dutenean Aiako jendeak kristoren moskeoak hartu ditu. Aiakoa nintzela esaten nuenean, ea hori non zegoen galdetzen zidaten, eta beraz, Oriokoa naizela esaten dut; arraun kontua dela eta denek ezaugten dute Orio.

Taldean bi Agirre gaude eta bereizteko batzutan "Orio" deitzen didate.

**K.: Egia al da Orioko-n fitxa faltsuarekin jokatu**

zenuela?

**J. A.:** Bai. Ni plaiereotan nenbilela, Orioko-tik deitu zidaten proba batzuk egiteko; nahiko ondo nenbilela jakin omen zuten eta probak egin nahi zizkida-tela haundiekin jokatzeko. Probak pasa nituen baina haundiekin jokatzeko adinik ez nuenez, adina zuen jendearen fitxarekin jokatzen nuen. Arazoak izan genituen baina beti ondo atera zen.

**K.: Nolakoak dira Errealeko probak?**

**J. A.:** Oso zailak, ez da erraza Errealean sartzea. Ume guztien ilusioa Errealean jokatzea da eta nik zorte ona izan dut.

Nik probak egin ntuenean Errelak hamar jokalari behar zituen eta nire izena azkena esan zuten aukeratu-en zerrendan; ordura arte oso



## 'Zerbait estudiatzera behartuta gaude'

larri egon nintzen.

**K.: Errealera iristean zerk deitu zizun atentzioa?**

**J. A.:** Kristoren disiplina eta seriotasuna dagoela. Orioko-n, lagunartean geundenez, katxondeo piskat zegoen baina Errealean entrenamenduak oso serio hartzen dira; ezin da bromarik egin, berehala kargua har-

tzen dizute.

**K.: Errealak urtetan zurekin egon den lagun bat kaleratzean zer sentitzen da?**

**J. A.:** Alde batetik, tristura, lagunak baikara. Eta bestetik, poza ez, baina gustora sentitzen zara zuk jarraitzen duzulako. Ni Errealean hasi nintzenean 18 jokalari ginen eta orain horietatik hiru edo

**bai-ondo**  
Supermerkatu

Telefonia: 83 47 50

**Carmen**  
ARRAINDEGIA  
\*\*\*\*\*  
Telefonia: 83 05 37

**TXOMIN**  
arraindegia  
Tlfnoa: 83 27 47

lau bakarrik geratzen gara eta lagun asko galtzen dira.

**K.: Hurrengoa zu izan zaitzkeela pentsatzen al duzu?**

J. A.: Bai. Jarraituko dugun edo ez denboraldia bukatuetan astebetera esaten digute eta egun hori iritsi arte talde guztia oso urduri egoen da. Egun hori pasatzean Errealean jarraitzen baduzu ondo, eta bestela kanpora.

**K.: Imanol Errealean ego-teak animatzen al zaitu?**

J. A.: Orioko norbait ikus-teak poz handia ematen du. Aurten, nik karmeta aterra arte, berarekin joaten nintzen entrenatzaera eta asko lagundu dit: zein jende zegoen, zer egin behar nuen, nola ibili behar nuen... esaten zidan.

**K.: Etxeko giroa berezia al da?**

J. A.: Bai, futbola denoi gustatzen zaigu eta ez dago beste konturik. Gurasoek asko lagundu didate eta arrotu samarra nagoela ikusi ezkerro, lanean berrin jarraitu behar dudala diote.

**K.: Gaur egun txolloa al da futbolista izatea?**

J. A.: Txolloa ez dakit, baina zaila da iristea eta oso gutxik lortzen dute. Futbolista batzuk eta besteek koblaztzen dutenaren artean alde handia dago eta ezin da futebolistek bakarrik bizi.

**K.: Ikasketak jarraitzen al dituzu?**

J. A.: Bai, administratiboko azken urtea egiten ari naiz Zubietan. Errealean behartu egiten galtuzte zerbait



## 'Taldeik hiru edo lau igoko dira bakarrik'

estudiatzen. Bestela, Errealerik bidali ezkerro, garbi geratzen gara, ezer gabe.

**K.: Ba al duzu Errealera igotzeko itxaropenik?**

J. A.: Bieti eduki behar da itxaropena. Gainera, aurten Errealarekin entrenamendu bat egin dut eta hori seinale ona da. Hala ere, orain igotzea zailagoa dela ematen du; atzerritarrekin diru asko gastatzen ari dira eta behokoezin lehen baino gutxiago kontatzen dute. Toshacken garaian igotzea errezagoa zela esan didate.

**K.: Lagunak eta taldeikideak izateaz gain, ez al zarete lehiakideak?**

J. A.: Jubenilak arte talde giroa handiagoa zen baina orain azken saltoaren garaia iritsi zaigu eta bakoitzak bere gauzetan pentsatzen hasten da. Gure arteko girtua ona izan arren, jendea egoista samarra da batzuetan.

**K.: Zenbaiten kontra jokatzean, beldurra pasatzen al da?**

J. A.: Jubeniletatik Bigarren B mailara salto handia dago eta 30 urte baino gehiago

goko jendearekin egiten duzu topo. Partiduro beldurra pasatzen dut, kontuz ibili behar da, baina ezin duzu partidu guztia beldurrez pasa. Aurten jende betterano askoren kontra ari gara jokatzen eta lesioekin argi ibili behar da.

**K.: Ba al duzu Athletiken aurkako klausula berezia?**

J. A.: Bai.

**K.: Alde ala kontra?**

J. A.: Alde batetik, Errealerik bezala jokalariak eramango; ez dut uste jokalari batengatik hainbat milioi ordainduko lituzketeenik. Baina bestetik, gora igotzeko askerarik ez baduzu, ez zait egokia iruditzen.

**K.: Etxeberria ezagutzen al duzu?**

J. A.: Bai, Errealean eduki dudan lagunrik onena izanda. Bost urtetan elkarrekin jokatu genuen, bai Errealean bai selekzioetan, eta oso ondo ezagutzen dut. Oso pertsona ona iruditzen zait eta nire ustez ondo egin du.

**K.: Etxeberria hain ona al da?**

J. A.: Gaur egun golegileak famatzen dira gehienbat eta bera golegilea izan da betidanik, asko destakatzen zuen. Batzuetan inbibidatuta sentitzen dut, berak da goeneko Lehen Mailan jokatzen duelako.



Gure  
herriko  
garagardoa

iTZiAR  
Kirolak

83 31 03

# Bizitzaren aldeko apostua

*Pasa den abenduan bi gizonek gose greba egin zuten Madrilen, hirugarren munduko injustiziak salatzeko eta, bide batez, Madrileko Gobernuari eskatzeko presupuestoaren %0,7a nazio pobreei laguntzeko izan dadila.*

*Gose-greba hastearekin batera Manifestu hau plazaratu zuten.*

Hiru mila milioi gizaki pobrezian bizi dira, mila milioi goseak daude, ehun mila hil egiten dira egunero. Hauei guztoi UKATU EGITEN ZAIE BIZITZEKO ESKUBIDEA. Trajedia hau ez da haiena bakarrik, gizaki guztiona da. Gainera, egunetik egunera lurra bera ere hiltzen ari zaigu, gehiegizko kontsumoa dakarkion kutsadurak eraginda.

Borondate oneko pertsonen salaketeek ez dute balio, zientzilariek inguru-giroaren ondamendiaz emandako abi-suek ere ez. Herrialde aberatsek nazio-artearen ezarritako ordenu berriaren injustizia nabarmenak eta gizakia zapaldu eta natura ondatu egiten duen sistema ekonomiko-ideologikoak ondamendiaren amildegian juri gaituzte. Bainan konponbidea, nire ustez, ez dago egitura ekonomikoetan, gure bihotzean eta gure buruan baizik: maitasuna eta zu-hurtasuna. Aukera egin behar da, norberekeria edo elkartasuna, lehia edo laguntza, eduki edo izan, itxurazko demokrazia edo benetako, gizakia bitarteko huts edo helburu, naturarekin bortrokan edo harreman armonikoan... Balio berri hauek, dagoeneko, hasi dira errrotzen gizartean. Egunero ikusten ditut horren adibideak. Bainan gure agintarien artean ez, eta zenbait gizataldean ere ez:

Goi-mailako enpresari batzuen jokaera lotsagarria da, pobrentzako %0,7 hori ere bereganatzentz sainaten baitiru. Etsipena sentitzen dut jakinda Espainiako Parlamentuak pobrentzatzemanda diruaren erdia desagertu egiten dela. Gonbitolarria izaten dut ikustean aurreko guzia izkutatzentz duten agint-

ri berberak direla, batere lotsarik gabe, elkartasunaren izenean hitz egiten dutenak.

Hartu dudan erabakia ez da teoria baten ondorio, ez zait burutik sortu, bihotzetik baizik, barren-barrenetik, munduko errealtitate gordina ikusita, alde bateko miseria ikaragarria, eta besteko intsensibilitate erruduna.

Miseria eta min izugarria nonahi: Ianik gabeko familiena, bortxatutako haurrena, gosez edo urkamendian hiltzea besterik espero ez dutenena, emigranteena, baztertuena, HIESAk jota daudenena eta zigortutako oinaze la-tza.

Gure Iur hau pobrezia eta oinazeak jota dago eta konponbidea behar du. Sufritzen dutenengana jo eta seme-alabak bezalaxe maitatuko bagenu, min lazgarri batek bihotza urratuko liguke.

Baina gure intsensibilitateak libratu egin gaitu sufrimendu horretatik eta, bide batez, beste oinazea zabaldu. Sentsibilitaterik eza baita pobrentzako aurrekontuaren %0,7 apur hori bera ere, ukatzen duten politikari eta agintariena; edo horretatik ere etekina ateru nahi duten enpresariena; edota gogoan plazerra eta kontsumoa besterik ez dutenena. Dirua eredu bihurtu eta Jainko tu egin duen gizarte honek milioika lagunen gosea dakin. Bainan diru horixe da kapitalismo modernoaren eta gehiegizko kontsumoaren helburu baka-rra.

Trajedia hau eta gure ajolagabekaria hiltzailea aurrez-aurre ikusteak ikara sortzen du, eta ikara honek goia jotzen du Gabonetako gehiegikerietan. Nazareteko Pobrearen jaia irain mingarriena bihurtu dugu munduko pobrentzat.

Denok gara errudun, mina eta heriotza zabaltzen dituen sistema honekin dugun komplizitateagatik gutxienez, Ez

ote du inork oihukatuko, Amerikako Romero gotzaia bezala, NAHKOADA!, nahiz eta, Romerok bezala, horrek bizitza arriskuan jarri? Horrelako oihu asko behar ditugu, norberaren bizi-mduan erabateko aldaketa eragingo dutenak; epelkeria eta ajolagabekaria alde batera utzita, eskuzabaltasuna eta radikalismoa pozik besarkatuko dituztenen oihuak.

Hainbat eta hainbat anai-arrebak barru-barruan sentitzen duten oinazeak eta hainbeste haurrenak ez dit beste irtenbiderik uzten, haien gosearekin bat egitea baino, asetuok goseari bukaera jartzen hasteko.

Hau ur tanta bat besterik ez da itsasoaren haunditasunean, baina horixe da nik ahal dudan gehienetan. Gose greba honekin bultzadarxo bat eman nahi diet %0,7aren aldeko borrokan dihardutenei. Noiz arte? Ba, gizartaren kontzentzia aldatzen hasi arte, eta alderdi politikoek elkartasunaren aldeko estatu-itun bat izenpetu arte, %0,7aren alde. Hau lasterketa baten lehenengo urratsa litzateke, egitura bi-degabek aldatzeko eta jokabide berekoi eta genozidekin bukatzeke.

Barkamena eskatzen dizuet nire a-sardiagatik. Litekeena da bide hau, agian itzulerarik gabea, egokiena ez izatea. Huts egiteko arriskua nire gain hartzen dut. Beldurra dut, baina Nazareteko Pobrearen emango ahal dit nik ez dudan indarra bere bideari jarraitzeko!

Drama-honek minberatzen gaituen guztiok egin dezagu oihu. NAHKOADA! Kontzentziak erakutsiko digu konpromezuaren bidea, pobreei itxaropena piztuko diena, bidea badago eta,

# Muniota

Igeldorako bide zaharraren ertz-ertzean dago Muniota baserria. Izen, hiru baserri dira: Muniota Zaharra, Erdi eta Berri. Lehenbiziko biak bidearen ezkerretara daude (*Oriotik Bentara goazela*) eta hirugarrena, berriz, eskubitara. Gu Muniota erdiko Jose Mari Lertxundi eta Luisa Iturbiderekin egon ginen hango berri jakiten.

JABIER ZABAleta  
ANA G. DE TXABARRI

Aspaldiko partez, euriari zuen gogotik Muniotara iritsi ginenean eta, hala ere, arbitatik zetozela esan ziguten Jose Marik eta Luisak hartu gintuztenean. Sasoiko dago Muniota Erdiko bikotea.

Jose Mari Muniota bertakoa da baina Luisa emaztea Iparraldekoa, Ainhoan (Lapurdi) jaiotza. Gerra ondoko garaian ezagutu zuten elkar, Jose Marik zortzi urte egin baitzituen han: 1938tik 1946ra bitartean. Hanezkondu ziren eta alaba zaharrena ere han jaoia da, nahiz eta hilabete gutxi zituela etorri hona.

## Gerrako kontuak

Jose Mari 19 urte zituela joan zen gerrara eta makina bat pasadizo badu kontatzeko. Hitzuna da eta ondo gozoan dauzka orduko kontuak: 'gaur egungoak baino hobeto akordatzen zaizkit ordukoak' esaten du. Badu bai zer kontatua, behin abaila hartuta, behin abaila hartuta, gelditu gabe jar-

iparraldetik etorri zenean erdibitu zuten Muniota baserria eta geroztik bi baserri dira han: zaharra eta erdikoa, Muniota Zaharrean Jose Mariren anaia bizi da emaztearekin. Kamioz bestaldeko Muniota Berri baserrian, berriz, Armuti Ernategi familiakoak bizi dira.

## Lizargateko festak

Goiko bailara horretako beste baserritarrek bezalaxe, garai batean auzoko artean zegoen giro ona azpimarratu digute Jose Marik eta Luisak. Jose Mari bera izan omen zen, bailarako beste hainbat lugunekin, Lizargateko festei hasiera eman zionetako. 16 urte zituen orduan eta, beraz, 1933an izan zen hori. 60 bat gazte ba omen ziren orduan bailaran, lehengo familia ugariak baitziren. Lehenbiziko aldiz antolatu ziren hartan, han ibili omen ziren Jose Mari

eta lagunak goiko eta beheko bailaretako baserri guztiek bisitatzen, festak antolatzeko konformidade eske.

Frantziatik etorrit geroztik Jose Marik ez omen du behin ere huts egin San Martin festa. Hau da inguruko baserritarrentzat urteko festa nagusia. Ondo gogoan ditu Lizargateko kantea zaharrean egindako parrandak, hango mutil-ardoa, bertsolariak, soinujoleak, toka-txapelketak eta abar.

## Baserriko martxa

Baserriko martxari segitzen diote oraindik: badituzte ganaduak eta ardiak eta baratzko korra ere bai. 'Zer egin ez genuke jakingo bestela eta!' esan digute.

Ez dute, hala ere, ikusten bidea baserriak segida izateko berak falta direnean, seme-alaba guztiek kalean bizi baitira.



**jaiotakoak**

Ane Arriola Larreta, abenduaren 30n

Juan Benito Etxeberria, urtarrilaren 4an

Jokin Elizalde Lertxundi, urtarrilaren 7an

Aitor Atxega Andres, urtarrilaren 12an

**Aian**

Maren Elzagirre Ubegun, abenduaren 19an

Eneritz Agirreurreta Goikoetxea, urtarrilaren 4an

Naiara Kaperotxipi Iruretagoiena, urtarrilaren 19an

**ezkondutakoak**

Iñaki Garate Aldaz eta Joana Murgiondo Aierbe, urtarrilaren 13an

Anjel Carrascal Mateos eta Edurne Navarro Labaka, urtarrilaren 20an

Jose Fernandez Basago eta Amaia Atorrasagasti Murua, urtarrilaren 27an

**Aian**

Ez da ezkontzarik izan

**hildakoak**

Jesus Garmendia Salaberria, urtarrilaren 4an, 86 urte

Maria Makazaga Agirresarobe, urtarrilaren 9an, 64 urte

Jabier Eizagirre Loidi, urtarrilaren 14an, 90 urte

Joxe Migel Lasa Aiestaran, urtarrilaren 17an, 69 urte

Juana Oteiza Zendoia, urtarrilaren 21ean, 84 urte

Ana Azkue Alzpuru, urtarrilaren 24an, 48 urte

**Aian**

Maria Frantziska Gurrutxaga Aiestaran, urtarrilaren 9an

**zorionak****Euskararen aldeko hitzarmena  
izenpetu zutenei**

Urtarrilaren 27an Udaletxeko pleno-aretoan Orioko 31 erakunde eta elkartek Euskararen Erabilera Indartzeko Hitzarmena izenpetu zuten.

Euskararen aldeko aurrerapausu handia eman zuen 31 elkarte horiek eta ederkii irabazita dituzte gure zenbaki honetako zorionak.

**zoriotxarrak****Udalaren abisuei kasoa pitorik egiten ez  
dioten herritarra**

Herritar batzuek ez diote kasoa pitorik egiten. Udalak jarritako abisuei eta, askotan, ondorio txarrak ditu horrek. Esate baterako, Udalak bandoa jo zuen aspaldi samar esanez ikastola ingurura ezin dutela autoz sartu bertan bizi ez direnak, inguru hori obratan baitago. Hala ere, sekulako ataskoak sortzen dira egunero umeak ikastolatik ateratzeko garaien jendeak ez duelako kasoa egiten eta kotxearekin ikastolako ate-ateraino sartu nahi izaten duelako.

**ARGI-GAIAK**

elektrizitatea

Iturbide 11, Tfnoa: 83 17 74

*daddy*

Estropalari kalea, 12 - Telf. 13 28 16 - ORIO

*merkealdia!*  
%50

**LIZASO  
ALTZARIAK**

Eusko Gudari, 46 ▶ 83 07 84  
Aita Lertxundi, 6 ▶ 13 33 01

**ITURAIN  
estankoia**

Aritzaga Plaza ▶ 83 08 28

*ertza*

Telefona: 83 09 29

# Orain dela 25 urte...

✓ 1971n, orain ez bezala, oso eguraldi hotza eta bustia izan genuen. Urte berri egunean zero azpiko tenperatura izan genuen. Beharbada eguraldiak eraginda ez zen gauza handirik gertatu gure herrian. *La voz de España* egunkariko kronikan hauek izan ziren gertakizunek azpimarragarrienak:

✓ Jose Manuel Peñak eta Juanito Larrañagak pelota desafioa izan zuten. Pilotu partidua arratsaldeko lauretan Igeldon jokatu zen, eta ikusleen artean makina bat apostu egin ziren.

✓ Juan Cruz Juaristi apaizak Ruandari buruzko diapositiba emanaldia eskeini zuen, berriz ere Ruandara itzuli aurretik. Orioko herria agurtzeko meza eman zuen eta dirua bildu bere misiorako. Garai hartan Maria Jesus Campos ere Ruandan zegoen misio lanetan.

✓ Jose Luis Korta eta Esteban Azkuek *El Diario Vasco* egunkariak antolatzen zuen 'urteko kirolaririk onena' saria irabazi zuten arraun eta plater tiroketa sailetan.

✓ 1970. urtean 86 jaiotza, 28 ezkontza eta 18 hildako izan ziren. Iaz, berriz, 1995ean, 39 jaiotza, 39 ezkontza eta 35 hildako. Orain bi urte, 1994an, 34 jaiotako, 32 ezkontza eta 32 hildako.

Oriok, gaur egun, 4.286 biztanle ditu, iaz baino bost gehiago, eta 1970ean, 3.893.

Orain dela 25 urteko datuekin konparatuta, ederki aldatu dira gauzak horregatik! 1970ean 393 oriotar gutxiago izanda, iaz baino 47 haur gehiago jaio ziren.

✓ Oria ibaia pasatzen den herrietako udalak, bertako enpresetako nagusiak eta Diputazioa akordio batera iritsi ziren ibaia garbitzeo. Horretarako enpresek bi urteko epean depuradorak jartzeko konpromezua hartu zuten, eta betetzen ez zutenek enpresa itxi beharko zutela esan zuten. Beraz, 1973rako Oria ibaiak kolore iluna, usain zikina eta aparrik ez zuela izango iragarri zen.

✓ Hilaren 27an Juan Zaraguetak 88 urte bete zituen.

Oinetakoak ☎ 830089

Iñaki Garate  
Aseguru-agentea

C C L  
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.  
Aseguruak

Aita Lertxundi 15, 2. ezk. Orio Telefonoa: 83 11 49

**T A L A I**  
AHOLKULARIAK, S. L.

### ASESORIA:

FISKALA, LABORALA  
JURIDIKOA, KONTABLEA,  
DIRUA AURREZTEKO

**Iñaki Olariaga Larrañaga**

Eusko Gudari 50-B, 1.E Telefaxa: 13 37 20

**MAPFRE  
ASEGURUAK**

- ✓ Osasun laguntza
- ✓ Etxeak erosteko finantziajiao
- ✓ Inbertsio fondoak
- ✓ Jubilazio planak

**DORRONSORO**

JANARIDENDA

Abeilar 3 ☎ 83 09 37

**ORIO**

AUTO-ESKOLA

Telefonoa: 83 57 19

# nire honetan

## Arraldeko KARKARA

Bi euskaldunatik batek herri prentsa irakurtzen omen du, jaso behintzat bai. Jakina, ez da berdina jasotzea edo irakurtzea.

Jasotzeak ez du ahaleginik eskatzen, nekea minimoa da; dohainekoa izateaz gain, etxeko buzoian jaso daiteke.

Aldiz, irakurtzean ahalegina egin behar da, burua martxan jarri eta nekatu: gainontzeko zereginak utzi, esaldi gordinegiak bizpahiru alditan irakurri, hitz bat edo beste hiztegian begiratu edo norbaiti esanahia galdu, irakurritakoari buruz pentsatu...

Arralden ere badute beraien herri aldzkaria; ez du KARKARA izena baina nik halaxe bataiatu dut denok ulertzeko.

Maria Luisak, Boga-Bogako zolu garbitu ondoren, KARKARAko orriak zabaltzen ditu lurrean zehar; bestela, bezero goiztiarrek beraien oinetakoak azturnak utzik lituzkete lur hezean.

Joxe Marik KARKARAko orriak txoriaren kaio-lan jartzen ditu, txoriaren eginbeharra modu txukunean jasotzeko. Gainera, gustoko ez duen norbaiten argazkiak agertu ezkerro, goruntz begira jartzen du txoriak eginbeharra gainera egiteko.

Hortentzi eta Margaritak argazkiak bakarrik begiratzen dituzte eta inor ez da geratzen beraien kritika ozipindurik gabe; hori bai, beraien argazkiak agertuko diren eguna amesten dute. Herriko albiste larrosik agentzen ez delako ere kexu dira.

Eusebiorentzat KARKARA hilean behin banatu beharreko zama astuna besterik ez da; KARKARA banatzan duen egunean, eguerdiko txikiteoa galtzen du.

Saturrek "Ezetz Ezagutu!" lehiaketako pertsonen izenak asmatu nahian pasatzen ditu Elkano Kultur Etxeko ordu hilak, Margarita afaltzera gonbidatzeko asmoz, baina orain arte zozketan ez du zorterik izan eta trampa usaina hartu dio.

Don Luis apaizak, KARKARA pila jarri zuen konfesionarioko aulkiaaren hanka puskatuaren ordez.


KARKARA, herriko jende batek herriarentzat egiten duen lana da eta lan horri egin dakioken estimazioik onena KARKARA irakurtzea da, bakotzak bere gaitasuna eta pazientziaren arabera.

KARKARA herriko historia txikia biltzen da, minuskulaz idazten dena, guretzat gertukoena, oraingoa eta iraganekoa. Herriko bizia papereratzen da, egunerokotasunaren jarduna isladatzan du.

Etorkizunean KARKARA tresna garrantzitsua izango da Orio eta oriotarron historia eta istorioak ezagutzeko eta beraz, irakurle, eskutan duzamaren balioa kontutan hartu eta aberasten saiatu.

● IAKES GOIKOETXEA ●

## KANPOAN DAUDEN ORIOTARRAK



## Inazio Iturain Arozana

Inaziok 46 urte daramatza Oriotik kanpo, 19 urte zituela Madrilera joan zen ikastera, eta geroztik kanpoan bizi da. 25 urterekin ikasketak bukatu eta Sevillara joan zen lanera, han hiru urte egin eta gero urte bete pasa zuen Parisen. 1960. urtean Madrilera joan zen, eta harez geroztik han bizi da. 1968an Renaulten hasi zen lanean eta jende asko da Orion berak saldutako kontxeak ibili dituena.

*"Orain arte ez dut inoiz herriminik sentitu, hilero edo bi hilabetetik behin, gehien jota, Oriora joan izan naizelako. Oriora joateko gogoa sentitzen nuenean kotxea hartu eta hogeita lau ordu-rako besterik ez bazen han nengoien. Horregatik ez dut euskerago galdu, eta beti jakin izan dut zer gertatzen den Orion. Orain lau hilabete*

*daramatzat joan gabe, gaixo egon naizelako eta lehenengo aldia da hainbeste denbora na-goela Oriora joan gabe".*

Kontxako estropadak, herriko jaiak, banderen bedeinkapioa, sagardotegi garaia eta gure herriko beste hainbat gauza ez ditu inoiz galdu izan, Sevillan zegoenean, behar bada, baina ez Madrilen bizi den ezkerotik.

*"Madrilen oso gustora bizi izan naiz beti, Madrilek duen onena izan dudalako, bere udaberria eta hiri handi batek es-kaintzen duena disfrutatu izan dudalako, eta Orioko gauza onak (udara, Gabonak, jaiak, barrikoteak eta abar) ez ditudalako galdu".*

Orain arte ez badu sekula pentsatu Oriora bizitzera etortzea, orain jubilatuta dago, eta datorren urtean edo, hona bizitzera etortzeko planak egiten ari da.

# Santa Kruz apaiza Aian

## Traizio baten historia

*Lehengo batean, historiako liburu lodi-lodi bat kuxkuseatzen ari nintzela, Orio aurkitu nuen bertan idatzirik. Aurkikuntzak kuriositatea piztu zidan eta, hogei minutuko irakurketa baten ostean, Aia eta Orioko herrien historiari buruz zertxobait ikasi nuen. Horrela jakin nuen aurten, otsailaren 1ean eta 2an, direla 123 urte Aian borrokaldi militarra izan zela.*

JOKIN SALSAMENDI

1873. urtean Euskal Herria Bigarren Karlistadan murgildurik zegoen. Batzuen iritziz gudu hau euskaldunen arteko gerra zibila izan zen eta beste batzuek, aldiz, euskaldunen eta espanyiarren arteko gudua izan zela diote.

Kontua da gerra bat izan zela eta gure bi herri hauek —Aia eta Orio— tartean zitela.

Liskarraren alde batean liberalak zeuden eta bestean karlistak. Karlisten artean bi talde armatu zeuden Gipuzkoan: bat Lizarraga jeneralaren ejerzito erregularra eta bestea Hernialdeko Santa Kruz apaizaren gerrillari-taldea. Bi talde hiek karlistak ziren eta gerrakideak, baina Lizarraga eta Santa Kruz ez ziren oso lagunak.

### Garaiko prentsako oharrak

Garai hartako prentsaren zenbait albisteren laburpena ekarriko dugu hona, gertakizun haien gertutasuna age-

1873ko urtarrilaren 30a: "Orioko zubia erre du Aiatiak juititako gerrillari-taldeak."

1873ko otsailaren 1a: "Erasotu eta hartu egin dute Aia. Aiako herria fortifikatu zuten Hernialdeko, Orioko eta Azpeitiko apaizen gerrillari-taldeek."

1873ko otsailaren 2a: "Gerrillariak sakabanatu egin dira. Neurririk gabeko galerak eta zoritzarrak."

### Aiako gudua eta traizioa

Aian zeuden karlistak Santa Kruz apaizaren gerrillari-taldeak

rian uzteko (euskaratuta ematen ditugu).

1873ko urtarrilaren 20a: "Usurbilen, San Esteban azpiko zubi txiki batean, gerrillarieki eta tropetik elkar topo egin dute. Osta koronela hil dacta tropak Usurbilera erritatu dira zenbait zauritu daramatzatela".

*Aduriz, Esain, Garate eta Lertsundi oriotarrak parte hartu zuten karlistadan Santa Kruz apaizaren taldean*



Ilariak ziren eta haien artean zegoen Orioko apaiza ere, Makazaga izenekoa.

Baina Aiako guduaren historia traizio baten historia da. Santa Kruzen gizonak Aian zeuden 1873ko urtarri-lean. Santa Kruzen asmoa gizonak trebatzea zen eta horregatik babestu eta fortifikatu zuten Aia.

Munizio gutxi zuenez, buruzagi karlistei eskatu zien eta hiek ez zioten kasu handirik egin. Orduan, Lizarraga Zarautzen zela aproba-txatuz, berarekin hitz egitera joan zen. Ordurako bazekien liberalak Aiarantz zihozuela, baina gotorlekua egokia zenez, lasai ziren karlistak. Santa Kruzek kartutxoak eskatu zizkion Lizarragari eta hark esan zion bidaliko zizkiola.

Santa Kruzei Aia joan zen liberaliei aurre egiteko asmoz, Lizarragak kartutxoak bida-liko zizkiolakoan. Baina Lizarragaren tropak ez ziren azaldu.

Liberalen kontrako borrokan gerrillarieki galdu egin zuten Aia, jakina, eta Zarautza joan ziren ihesi Santa Kruz eta bizirik geratzen zirenen laurogeita humar gizonak. Lizarraga, Aiako bidea hartu beharrean, Itziar alde-را joana zen ordurako.

Gai horri buruz *Encyclopédia histórica-geográfica* bildumako *Guipúzcoa* ataleko 5. liburuako 304-309. orrialdeetan aurki daiteke informazio gehiago eta, baita ere, Orixeren *Santa Kruz apaiza* liburuan.



## **EZETZ EZAGUTU! lehiaketa**

Ihauteri garaien sartzera goazela eta iazko ihauterietan ateratako argazkia dugu zenbaki honetan. Zortzi neskatxa hauen artetik lauren izen eta abizenak eman behar dizkiguzue.

*Bigarren galdera: Zenbat urterekin bukatuko dute umeek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza?*

*Orain arte egin dugun bezala, afari bat zoketatuko dugu asmatzaileen artean.*

*Afaria Joxe Mari Erretegian izango da.*

*Erantzunak otsailaren 20rako bidali behar dizkiguzue, helbide honetara:*

**KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu! lehiaketa Herriko plaza, I (Udaletxe atzeko karkara)**

*Aurreko irabazlea Teodoro Zuloaga izan da. Hau da berak eman zigen erantzuna: Feli Sarobe, Koro Eizmendi, Maria Isabel Lertxundi, Maria Jesus Zubimendi eta Pilar Beldarrain.*

*Bigarren galderaren erantzuna: Europa, Afrika eta Asiakoak dira Errege Magoak.*

**JOXE MARI**  
**ERRETEGI**



## **Aukera egin aurretik, zatoz gu ezagutzena!**

Aukera egin aurretik, zatoz gu ezagutzena!

Aukera egin aurretik, zatoz gu ezagutzena

Aukera egin aurretik, zatoz gu ezagutzena!

## **Zaragueta Eskola Publikoa**

Matrikula-epea zabalik otsailaren 1etik 20ra

